

bagira\*

# Herri bidea

—  
IPAR EUSKAL HERRIKO  
MUGIMENDU ABERTZALEAREN  
BIDE-ORRIA



**Herri Bidea**  
**Ipar Euskal Herriko Mugimendu**  
**Abertzalearen Bide-Orria**  
(2024)

**Erredakzioa:** Bagira

**Maketazioa:** Sabina Hourcade

**Argazkilariak:** Alexander Milo, Pawel Czerwinski, Isai Sanchez, Denys Nevozhai, Dom Fou, Duncan Shaffer, Daniela Martinez, Fabio Comparelli, Gabriel Jimenez, Sabina Hourcade, Mediabask, Bagira.


**Inprimategia:** Gertu

**Eskerrak:** Bagirak eskertzen ditu bide-orri honen sorrera etapa ezberdinetan parte hartu duten ehundaka laguntzaileak: inkestan, gogoetetan, idazketan, itzulpen lanetan, berrirakurketan, maektazioan.... Bihotzetik milesker!

**Weborria:** [www.bagira.eus](http://www.bagira.eus)

# Aurki- bidea

<b>Sarrera</b> .....	<b>04</b>
Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen ibilbidea	06
Bagira prozesua	08
Mugimendu Abertzalearen bide-orria	10
<b>Globaletik lokalera, egoeraren azterketa</b> .....	<b>12</b>
Egoera globalaren gakoak	14
Tokiko egoeraren analisia	21
Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalea	25
Ondoko hamarkadako eginkizun historikoa	28
<b>Abertzaletasuna XXI. mendean</b> .....	<b>30</b>
Abertzaletasunaren oinarri historikoak	32
Oinarri ideologiko garaikideak	36
Abertzaletasuna ekintzailletza anizkoitza da	38
<b>Hamarkadako helburu nagusiak</b> .....	<b>40</b>
Urrats instituzional berria	42
Hamarkadako erronka nagusiak	43
<b>Estrategiak eta praktikak</b> .....	<b>54</b>
Estrategiak	56
Praktikak	59
<b>Mugimendu egin</b> .....	<b>62</b>
Eraldaketa feminista	64
Gazteria	65
Artikulazioa eta osagarritasuna	67
Aniztasuna eta elkarlana	68
<b>Konklusioa</b> .....	<b>70</b>



# Sa- rre- ra

IBILBIDEA  
PROZESUA  
BIDE-ORRIA

# Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen ibilbidea

Mugimendu Abertzaleak bere lehen harria Itsasun jarri zuen abantzu duela 60 urte. Lehen etapa honetako fruituak oparoak izan ziren. Gure lurraldean borroka abertzalea sustraitu eta egitura edo sektore anitzen zein milaka militanteen sorrera permititu zuten. Bakoitzak bere maneran, harriz harri lurralde honen historiaren zati bat eraikitzen parte hartu du.

Momentu berean, Enbatak enbor komun baten sustraiak landatu zituen, zeinetik Ipar Euskal Herrian Mugimendu Abertzalearen adar anitz nabarmendu ziren. Orduz geroztik, Mugimendu Abertzaleak erakunde andana ezagutu du Ipar Euskal Herrian: Euskaldun Gazteria, ETA, Anai Artea, Jazar, Ezker Berri, Mende Berri, EIBAT, Iparretarrak, Herri Talde, Izan, Laguntza, Herriaren Alde, EHAS, Hordago, ELB, EMA, Euskal Batasuna, Patxa, Hexa, Eusko Alkartasuna, Abertzaleen Batasuna, Oldartzen, EHLE, Autonomia Eraiki, Piztu, Gazteriak, IEHIE, LAB, Demo, Haika, Batasuna, Segi, MRA Fundazioa, Bizi !, EH Bai, Sortu, Aitzina, Alda...<sup>1</sup>

Adar anitz hauen jatorria galdera bati emaniko erantzun ezberdinetan dago nagusiki: «Nola aitzinarazi borroka abertzalea Euskal Herrian?». Borroka armatuaren erabilera eta Ipar Euskal Herriko berezko estrategia baten garapena bi desadostasun iturri nagusien artean kokatzen ahal dira. Beste faktore batzuek abertzaleen panorama organizatiboa astindu dute ere. Besteren artean, tokiko aterabide politikoak sortzea permitituko lukeen Ipar Euskal Herriko instituzio propio baten eskasiak, hainbat hamarkadetan abertzaleen hauteskunde emaitza txarrek, aukera politikoen idekiera edo itxierak, aldaketa sozioekonomiko orokorrek, errepresio politikoak, edota eskema kultural eta ideologiko berriko belaunaldi berrien sartzeak.

Urte hauetan tentsioak eta minak izan dira, baina baita prozesu politikoaren garapenean jauzi kualitatiboak eragin dituzten bat egite sekuentziak eta eraikuntza komunak ere.

Mugimendu Abertzalearen historiak etenik gabeko borroka eta aitzinatze baten historia izaten segitzen du; iragandako garaietako aukerak baliatzen jakin duen askatasun egarri bat, gaurko egunetaraino nehoiz baino biziagoa ekarri duena.

**Egun, Mugimendu Abertzalea, emendatzen ari den fronte politiko eta instituzional batean garatzen da; baita eguneroko engaiamenduen bitartez ere, antolakunde sektorialen konstelazio zabal baten baitan** (laborantza herrikoian, herri komunikabideetan, ekonomia sozial eraldatzailean, ekologian, tokiko monentan, ekintza sozial eta solidarioan, ekintza sindikalean, ikastoletan, euskalgintzan, kulturgintzan, energia berriztagarrietan...) **edota mobilizazio aldarrikatzaile eta besta egun handien inguruan** (AHTaren kontrako borroka, Batera, gatatzaren ondorioen konponbidea, mobilizazio sozialak, Korrika, Alternatiba, EHZ, Herri Urrats, Lurrama...).

Mugimendu Abertzaleak kuantitatiboki eta kualitatiboki aitzina egin du inflexio puntu garrantzitsu batean kokatu arte. Ipar Euskal Herriko lehen instituzioa lortu eta gero, hauteskunde emaitzen emendatze azkarra ezagutzen ari da, bereziki herri/elkargo mailako bozetan, eta berrikiago departametaletan eta legegileetan. Erdi zabalik den lehi berri baten aitzinean kokatua da, dauden aukerak hein handian eraikitzeko direlarik. Gainera, borroka armatuaren bukaerak Ipar zein Hego Euskal Herrian, ETAREN desagiteak eta gatatzaren ondorioen konponbidean egin aitzinamenduek prozesu politikoa ezaugarri berrietan kokatu dute.

Kanpo faktoreei dagokienez, aldaketa globalek eta batez ere Estatu mailakoek, mehatxu berriak sortzen dituzte, baina baita Euskal Herriaren burujabetzaren beharra eta garrantzia baieztatzen ahal duten aukerak eskaini ere. Borroka abertzalearen aitzinamendua ez dago idatzirik. Bihar ere, Estatu botereekiko konfrontazio sekuentzia berriak sortzea eta bere helburuetan aitzinatzea, Mugimendu Abertzaleak ezarriko dituen indarren emaitza izanen da.

Hazkunde betean eta aurrekaririk gabeko aukeren aitzinean den momentuan, Mugimendu Abertzaleak gogoeta komunak egiteko espazio eta denborak eskas ditu bultzada berri bat eta azkartze erabakigarriak gauzatzeko.

<sup>1</sup> Ezagunenak aipatzearen, zerrenda osoa askoz luzeagoa da.



## Bagira prozesua

Horregatik, 2022ko abenduaren 14an, Bidarrain, ibilbide guzietako abertzale multzo batek Bagira prozesua pizteko ardura hartu zuen. Gogoeta horren helburu orokorra, Ipar Euskal Herriko abertzaletasunari Mugimendu izaera berriz ematea, berrindartzea eta beste 60 urte gehiago proiektatzeko oinarriak eskaintzea zen. Anbizio hau, ondoko lau azpi-helburutan deklinatzen da:

- Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen oinarriak eguneratu;
- Epe ertaineko helburu eta etapa partekatutako kokatu;
- Mugimendu gisa antolatu eta artikulatu;
- Belaunaldi transmisioa bultzatu.

Bagira prozesua bukatzen ari da orain. Transmisio Historikoaren sekuentzia bat utzi du, Mugimenduko eragileek antolatu 14 ekitaldiz osatua, 750 pertsona baino gehiagok parte hartu dutelarik. Sekuentzia horri esker, iraganetik ikasi ahal izan da, mugimenduaren osagai anitzen ibilbideak aipatu ahal izan dira, oraingo momentu historikoari neurria hartu zaio eta ondare historiko hori belaunaldi berriei transmititu ahal izan zaie. Artxibo, argazki, bideo, audio anitz uzten ditu, etorkizuneko engaiamenduak epe luzean errotzeko gisan.

Prozesuak bere hedadura guzira hartu zuen Mugimendu osoak, bi egunetan, Itsasun antolatu 2023ko Aberri Egunean. 3 000 lagun elkartu ziren Mugimenduaren sorreraren 60. urteurrenako edizio historiko honetan. “Izan ginen, Bagira, Izanen gira” adierazpenak azken sei hamarkadetako aitzinatzeak lehen lerroa ekarri zituen eta abertzaleek borrokan segitzeko duten engaiamendua berretsi.

Ondotik, diagnostiko partekatua abiatu zen 1 500 abertzalaren parte hartzea ukan zuen galdeketaekin. Azken honen emaitzen inguruko aurkezpen eta eztabaida itzulia egin zen Ipar Euskal Herri osoan, baita Hego Euskal Herriko hiriburuetan ere. Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen Jardunaldietan eztabaidatzeko aurkeztu diren bide-orri honen erronka nagusiak agerian utzi zituen.

**Bagira prozesuak Mugimendu Abertzalea berritzeko baldintzak sortzeko ere lan egin du, gazte abertzaleak biltzeko ekimenak lagunduz eta etapa guzien antolakuntzan abertzale berriak inplikatur.** Emazteen eta minorizatuen parte hartzeari beti kasu eman dio Mugimenduaren feminizazioan bere ekarpena egiteko xedearekin.

Azkenik, prozesuak, Mugimendu bateko kide eta beren engaiamenduak jendarte emantzipatu eta inklusibo baten proiektu komunaren zerbitzura ezartzen dituzten erakundeek eta norbanakoek osaturiko ekosistema bateko kide izatearen kontzientzia indartzea ahalbidetu du. Ekitaldi horien bitartez, Bagirak etengabe bilatu du Mugimendu Abertzalearen batasuna eta bere aniztasuna zaintzea.





## Mugimendu Abertzalearen bide-orria

---

Prozesuaren eginkizuna Uztaritzeko 2024ko Aberri Egunean publikoki aurkeztu den orientazio dokumentu honekin bukatzen da. Ez da jendarte proiektu bat, programa politiko bat, ezta Mugimendu Abertzalearen aldarrikapen guzien dekalogoia ere. **Bide-orri hau Mugimendu gisa ekiteko eta ondoko hamarkadan aitzinatzen segitzeko aukera ematen duen iparrorratza da.**

Inkestaren emaitzetan, ondotik iragan diren eztabaidetan eta Bagira prozesuaren kari partekaturiko momentuetan oinarritzen da. Bide-orri honek lau atal nagusi ditu:

- Ipar Euskal Herriko momentu politikoaren eta Mugimendu Abertzalearen analisia;
- XXI. mendeko abertzaletasunaren oinarrien eguneraketa;
- Ondoko hamarkadako erronka nagusien eta partekaturiko helburuen aurkezpena;
- Mugimendu Abertzalearen antolaketa hobetzeko proposamenak.

Bide-orri honen arrakasta orain, beren engaiamenduetan, orientabide komunak ekintza konkretuetan gauzatzeko gai izanen diren pertsona guzietan datza.

« Egun, Mugimendu Abertzalea, emendatzen ari den fronte politiko eta instituzional batean garatzen da; baita eguneroko engaiamenduen bitartez ere, antolakunde sektorialen konstelazio zabal baten baitan edota mobilizazio aldarrikatzaile eta besta egun handien inguruan. »

# Globaletik lokalera



## egoeraren azterketa



EGOERA GLOBALA  
EGOERA LOKALA  
MUGIMENDU ABERTZALEA  
EGINKIZUN HISTORIKOA

# Egoera globalaren gakoak

## Aldaketa ekologikoa

Kapitalismoa eta sistema ekonomiko liberala bateraezinak dira biosferak berritzeko behar duen denbora eskalarekin. Ekosistemek ezin diote masa kontsumoa eta etekin mugagabeak helburu dituzten amets amerikarrear murgilduriko mendebaldeko jendarteen erritmo eta ustiaturiko baliabide kopuruari eutsi. Biodibertsitatea gainbeheran doa, zoruak akitzen dira, klima azkarki aldatzen, kutsadura gorputzera sartzen edota osasun-arriskuak biderkatzen. Planetaren 9 mugetariko 6 gaingitu ditugu gizakiaren ekintzen ondorioz; horregatik ematen zaio antropozeno izena bizi dugun garai geologikoari.

Gure jendarteak maileguekin bizi dira. Izan ere, planetako biztanle guztien bizi-baldintzak mehatxupearan jarri eta ondoko belaunaldienak kolokan ezartzen dituzte.

Kapitalismoa ez dago ingurumenari egindako kalteak edo kalte sozialak konpontzeko programaturik; ezta epe luzeko aldaketak planifikatzeko ere. Imobilismoaren aldeko lobbyen interesekiko dependentzia duten heinean, estatuen eta nazioarteko komunitatearen inizatibak motelegiak dira. Desmasiak garrantzitsuegiak, azkarregiak eta kasu batzuetan itzulezinak dira. Hala, ezinezkoa da oraino heldu ez diren aterabide teknikoen menturan gure bizi eredia mantentzea. Ezagutzen dugun mundua aldatuko da, nahi ala ez. Ekimena hartu ezean, izugarrizko giza sufrimendu planetarioak eragin en dituen minbizi bat bezala hedatzen ari da krisi ekologikoa.

Kalteak mugatzea premiazkoa izateaz gain, ezinbesteko aldaketak aurreikusi eta nahi dugun jendarte eredu bertutetsuetara iristeko metamorfosia piztu behar da. Sistema osorik (ezberdinkeria sozialak, genero harremanak, dominazio kulturala) aldatuko duen jendarte eredia plantan ezartzeko aukera izan daiteke krisi ekologikoa. Hala, haien bizi-baldintzen gaineko burujabetza itzuliko litzaieke herritarrei.

## Eraldaketa ekonomikoak

Kapitalismoa erradikalizatzen ari da. Nechoizko hein handienetara heldu den kapital metaketa, nehoizko gutxiengo murriz eta aberatsenaren eskuetan dago. Ultra-aberatsak gauzatzen ari diren lanaren balioaren espolioazioak azken hamarkada luzeetan ikusi gabeko ezberdinkeriak eragiten ditu; baita klase ertainari segurtasun ekonomia erazi eta klase herritarrak larriki kolpatzen dituen probretze orokorra ere. Prekarizazioa - batez ere sektore feminizatuena (garbiketa, osasungintza, soziala, irakaskuntza...) -, denbora partzialeko lanen emendatzea, auto-enpresagintza, zerbitzu publikoen pribatizazioa, garaipen sozialen eraiste antolatua eta enpresa zein kolektibitateetako eskubide sindikalen murrizketa dira ofentsiba honen adibideetako batzuk.

Mundializazio azkarraren eta hego globaleko potentzia ekonomiko berrien agerpenaren testuinguruan, ekoizpen ekonomia gainbehera doa iparreko herrietan. Turismo (eta alokairu) ekonomien norabidean, irabazi eta enpleguen tertziarizazioa eta kontsumo desira oro edo lehenago elkartasun harremanek asetzen zituzten beharrak (garraioa, konponketak, aholkuak...) monetizatzen dituzten zerbitzuen uberizazioa azkartzen ari dira.

Artisautza eta laborantza hankaz gora jarri zituen mekanizazioaren eta enplegu industrialak kolpatu zituen robotizazioaren ondotik, inteligentzia artifizialaren etorrerak zerbitzu jarduerak baldintzatuko ditu, baita puntakoenen kasuan ere.

## Estatuen krisia eta birkonfigurazio geopolitikoak

Garapen ekonomiko eta teknikoak ez du, jadaneko, aurrerapen sozialik ekartzen. Ekoizpenerako gaitasunaren emendatzea ez da aberastasunaren banaketa eta ongizate pertsonal zein kolektiborako jarduerak sustatzeko lanaren murrizketa edo banaketa plantan ezartzeko baliatzen.



Gobernuek ez dituzte herritarren babesa, elkartasun kolektiboa eta bakoitzaren oinarritzko beharrak (elikadura, energia, etxebizitza, hezkuntza, osasuna...) segurtatzen. Aitzitik, zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzte, austeritate politikak ezarri eta kalteberenei babes sozialak urritu.

Demokrazia liberaletako ongizate estatuak funtzio erregaliarrak betetzera mugatzen dira eta garaipen sozialen eta haien aldeko militanteen aurkako borroka aktiboa egiten dute eskubide eta askatasunak murriztu eta bortizkeria politiko zein judiziala erabiliz.

Frantses Estatuak jada ezin du nazioaren batasunerako loturarik edo gerora begirako proiektu bateratzailerik eraiki. Frantses Naziora atxikitzeko makinaria geldirik dago. Jada ez dago Argien aspirazioen edo Egun Zorionsuen promesa batean oinarritua. Mendeetan entseatu arren, Frantses eta Espainiar Estatuak ez dute «jendartea egiterik» lortzen. Aitzitik, **lurraldeen eta hiri zein landa espazioetako eremuen arteko deslotura, haien baitako komunitateen arteko edo nazionalki zein sozialki gutxituriko herriekiko gatatzak nagusitzen dira.**

Herritarren beharren segurtasuna bermatu behar duen «kontratu soziala» ez errespetatzeak ekartzen du Estatuaren krisia. Zerbitzu publikoen pribatizazioa zein botere ekonomikoen indartzea eta eredu neoliberalak sustatzen duten nazioarteko instantziak ere eragiten dute indar galera hori. Europa liberal batean gorpuzten den proiektu europarrak ez du nehor erakartzen.

Mundu mailako ordena aldatzen ari da. Oreka geopolitikoak birkonfiguratu ari dira interpendentzia harremanen eta baliabideen zein ildo estrategikoen (lur bakanak, baliabide energetikoak) arabera. Tentsioak gora doaz. Potentzien arteko gerlax fronte ekonomiko zein militarrean gauzatzen ari dira. Gero eta autoritarioagoak diren estatuaren buruan figura politiko populistak sortzen diren bitartean, gose inperialistak berriz azaleratzen dira.

## Aldaketa soziologikoak


**Mundu globalizatu honetan, mundu mailako aldaketak gero eta eragin handiagoa dute bakoitzaren bizitzarengan. Ikuspegi soziologikotik, aldaketak gero eta bizkorragoak dira.** Panorama osoa beltza ez den arren, hona nagusitzen diren tendentzia batzuk:

Norbanakoek, gero eta begirada instrumentalagoa hartzen dute, irabazi/galdu kalkulua baten ikuspegitik. Berehalakotasunaren jendarteetan bizi gara, zeinetan norbanakoek enplegua, bizilekua, familia egoera, nortasuna edota hizkuntza aldatzen dituzten etengabe. Norbanakoak askotarikoak dira eta aniztasunak jendarteak zeharkatzen ditu, gero eta gehiago.

Numerikoak eta teknologia berriek gure garaia erabat ezaugarritzen dute. Informaziorako eta jakintzarako sarbidea demokratizatzen ari dira. Esfera publikoaren zein borroka ideologiko eta mediatikoen zati bat joko zelai numerikora iragan dira. Berehalakotasunaren eta informazio kopurua handiaren ondorioz, azalean gelditzeko arriskua dago, arazoaren kausa ulertu eta aterabideak atzematzeko ezinbestekoa den ikuspegi objektibo eta kritikoa zailduz.

Munduarekiko harremana aldatzen dute sare sozialek. Komunitate numerikoetara konektatzeko parada ematen dute, fisikoki urrun egon baina interes berak dituzten pertsonak elkarrengana hurbilduz. Aitzitik, hurbileko pertsonak eta tokiko nortasunekiko urruntasuna ere sustatzen dute. Norbanakoek gero eta gutiago lortzen dute «jendartea egitea».

Bizitza jadaneko ez da lanaren eta zutabe egonkor batzuen gainean eraikia (klase nortasuna, lurraldea, familia). **Nortasunak mugikorrek dira eta askotariko atxikimenduei lotuak** (generoa, aisialdia, ingurumena, elkarte munduko engeiamenduak, hezkuntza, elikadura, osasuna...). **Nortasun kolektiboak gainbeheran doaz. Individualismoa gero eta indartsuagoa da.** Errealizazio pertsonalaren bilaketa ez da halaberharrez abentura kolektiboen bidez gauzatzen, desiren berehalako asebetze materialaren bidez baizik.



Norbanakoek haien eta jendartearen arazoan arduraren izatean datza ideologia neoliberalak sortzen duen eredu. Eredu horrek norbanakoak bakartzen ditu, haien bizitzaren «ekintzaileak» izateko galdegiten die, lehiakortasunaren eta arrakastaren kultura exijitzen die arlo guztietan (eskola, lana, etxea, denbora libre, familia harremanak, estetika fisiko...). Oronen gainetik, akidura, asebetetze pertsonalik eza eta munduaren martxarekiko inpotentzia sentimendua eragiten ditu. **Azeleraturiko aldaketan ondorioz, egonkortasun behar bat agertzen da (ekonomikoa, afektiboa...), baita nortasun kolektibo lurraldetuen kokapena eta sustraiak ere.** L39. Kolpe batez gertatuko litzatekeen erabateko aldaketa hitzemanduak duten diskurtso handiek ez duten erakarpen- indar nabarmenik. Garai bateko eredu militanteak krisian dira. Politikarekiko, eragileekiko (alderdi, sindikatu, kolektibo), instituzio eta hautetsiekiko uzkuratasuna emendatzen ari da. Esperientzia militantea ez da gehiago balizko konponbide global baten itxaropenez egiten den sakrifizioa bezala ulertzen. **Engaiaturiko norbanakoek, haien balorekiko koherentzia bizitzea posible egiten duten berehalako tokiko eraldaketa neurgarriak bilatzen dituzte, beren bizi-baldintzen jabetza berreskuratu nahian.** Behar honen agerpena nabaria da bai bizi-praktikak eraldatzeko alternatibetan, bai «zentzua duten» lanbideen aldeko hautua egiterako orduan.

Mobilizaturiko pertsonak, batez ere gazteak, engaiatzeko prest daude baita manera intentsuan ere. Betiere, baldintza batzuen arabera:

- Baliagarria sentitzea, emaitza azkarrak eta neurgarriak lortzea.
- Esperientzia militantea plazer-iturri izatea eta kolektiboarekiko atxikimendua sentitzea.
- Engaiamendu garaiak doitu eta errealizazio pertsonalerako gainerateko iturriekiko oreka atxikitze, denbora zein eskainitako energia zaindu eta distantzia kritikoa mantentzea.

## Neurrigabekeriaren bukaera

Estatuek eta estatuen arteko instantziek plantan ezarria duten merkatu logika ultraliberalak mundua menperatzen segitzen duen bitartean, jendarteek neurritasunari aurre egin beharko diote eta limite ekologiko eta ekonomiko konponezinekin bizi beharko dute. Kontua da nola kudeatuko den limite hori.

**Neurrigabekeriaren bukaera hau, herritarrei kontrol demokratikoa itzuliko liekeen jendarte eredu aurrerakoiarekin irudikatzen ahal da. Neurritsua, zuzena, berdinzalea, solidarioa, lurralde erresilienteetan birtokiratua, tokiko nortasun inklusiboen aberastasun sozial eta kulturean oinarritua eta mundu mailako elkartasuna sustatzen duen jendarte ereduarekin, hain zuzen.** Alde hau feministak, ekologistak, ezkertiarak eta nazio askapen borrokan alde diren indarrek bultzatzen dute.

Baina joera orokorra gutiengo aberats batentzat baliabideen agortze eta pribatizazio eredu atzerakoietara ere alda daiteke, hots, eskuineko eta eskuin muturreko indar kontserbadore eta autoritarioek bultzaturiko bazterketa eta identitatearen baitan hetsirik egotea. Gaur egun, ezkerrek krisian dira, eta ez dira gai tokiko identitateei buruzko diskurtso aurrerakoiak egiteko eta ezkerreko, ekologista eta feminista indar guziak bilduz bloke historikoak osatzeko. Eskuin muturreko indarrek nazioarteko panorama politiko osoa polarizatzen dute eta gobernuak politika sozial atzerakoiekin eta ekonomiko ultraliberaletan lerrokatzea bultzatzen dituzte.

Horixe da alderdibitasuna utzi duen eta bere bloke liberalak gehiengorik gabe eskuin muturreko ideiak eta arauak bere egiten dituen Frantziako Estatuaren kasua, eskuin muturrari gero eta gehiago aldizkatzea ahalbidetuz.

## Estatu gabeko herrientzat sekuentzia berria

Egungo erronkei aurre egiteko, burujabetza politikoaren beharrak subiranismoa pizten du herrialde menderatzaileetan, baina baita mundu mailako estatu gabeko nazioetan ere. Eskoziak, Irlanda, Katalunia, Korsika, Kanaky eta Polinesia emantzipazio prozesu politikoek, aukera berriak lortzeko testuingurua sortzen dute.

# Tokiko egoeraren analisi



## Testuinguruko elementuak

Hego Euskal Herrian, ezkerreko abertzaletasuna egiazko botere handitzea ezagutzen ari da, eta aitzinamendu hori hauteskunde-hazkundera islatzen da EH Bildu indar politiko nagusi gisa ezarriz. Ondorioz, EAJ-PNVren hamarkadetako hegemonia zalantzan ezartzen du.

Indar honek euskal presoan, iheslarien eta deportatu politikoan auzian aitzinatze erabakigarriak ahalbidetu ditu eta Espainiako Erresumaren menpeko estaturik gabeko beste nazioetan - Katalunia, Galiza - burujabetzaren aldeko indarrak izaten ari diren hazkunderarekin batera, nazio aitorenaren auzian bideratzeko aukera berriak sortu dira..

## Ipar Euskal Herriko testuinguru kultural eta sozioekonomikoa

Hainbat hamarkadatan, Ameriketara lehenik, metropoli handietara gero, euskaldun gazteen emigrazioa ezagutu duen Ipar Euskal Herria lurralde biziki erakargarria bilakatu da. Urtero, kasik 12 000 «heldu berri» finkatzen dira, 9 000 partitzen diren bitartean. Horrek 3 000 pertsonako migrazio balantza garbia ematen du.

**Dinamika demografikoa** kostaldean kokatzen da nagusiki, barnekaldean populazioa galtzen segitzen den bitartean. Ondorio konkretuak ditu lurralde guzietan. **Ipar Euskal Herriko egoera linguistikoa, kulturala eta nortasuna baldintzatzen du, eredu sozioekonomikoa bera zalantzan ezarriz:** jarduera ekonomikoak nagusiki kostaldean finkatzea, inflazioa, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen emendatzea, laborantza-lurren artifizializazioa, laborari kopuruaren beherakada, joan-etorrien biderkatzea eta ondorioz, berotegi-efektuko gasen isurtzeena...

COVIDaren krisiak, telelanak, garraio lasterrago eta merkeagoen eskuragarritasunak baina erakargarritasun eta masa-turismo politikek ere bizkortu dute fenomenoak. Jendarte hipermodernoek beren jatorrizko lurraldea uzten duten pertsonen mugikortasuna errazten dute, hemen edo nonbait,



bizitzeko ingurune desiragarriagoa aurkitzeko ziurtasunarekin. Horiek horrela, «heldu berriei» buruz informazio guti dugu.

- Hain segur anitz dira lurraldera itzultzen ari diren ikasle, langile ohi eta gazteak. Gaur egun ere, unibertsitate-eskaintza egoki baten eskasia eta puntako jarduera-sektore ezak, gazte andana lurraldea utzi eta gero bertara itzultzera eramaten du.
- Beste batzuek ez dute nehoiz lurraldearekiko harremanik izan baina bere eraikuntza sozial, linguistiko, kultural edo politikoa parte hartzeko asmoarekin heltzen dira. Gogo horrek, askotan, lurraldearen esperientzia sentikor baten forma hartzen du sarbide gisa funtzionatzen duten hainbat ekitaldi eta topaketen bidez, eta euskararekiko kontaktoaren bidez.
- Heldu berriak batzuetan lurraldearen aberastasun kultural eta sozialarekiko axolagabeak dira ere, promozio-kanpainen bidez saldu zaien bizi-ingurune bat “kontsumitzera” bakarrik etortzen direnak, sekulan ez zaielarik aipatu postalaren beste aldea, ber maneran erakargarria (gauzak «elkarrekin egiteko», antolatze, etab. gaitasuna).
- Azkenik, heldu berrien artean, publiko ahulagoak, behartsuak eta elkartasun sarerik gabe direnak atzematen dira.

Dinamika demografiko horrek, biztanle berriak integratzeko erronka seriooki hartzeko beharra areagotzen du. Are gehiago, kondutan hartzen badugu lurraldeko jendarte eremu batzuk - belaunaldiz belaunaldi presenteak - ez dutela harreman handiegirik euskararekin, euskal kulturarekin edo Mugimendu Abertzaleak defendatzen duen jendarte proiektuarekin.

## Bake prozesuak etapa berri bat gainditu du

Aieteko Nazioarteko Konferentziak eta Baionako adierazpenak irekitako prozesuak egoera azkarki aldatu du gatazkaren ondorioen konpontzearen aldeko gehiengo sozial eta politikoa osatuz. Abertzaleen gaiak lurraldeko agenda politikoaren erdira eramateko eta Herri gisa erantzuteko manerei buruzko irakaspen ugari eman ditu. Preso atxikitze baldintzen eta ondotik euskal preso politikoen askatasunaren inguruko aitzinatzeak garrantzitsuak izan dira. Frantses Estatuak gatazka politikoa izan duen parte-hartzea ukatzen segitzen du eta gatazkaren oinarriari buruzko konponbide demokratiko, ireki eta adostua errefusatzen du.

Preso politikoen askatasunean gaintitu faseak indar militanteak gatazkaren arrazoietara bideratzea ahalbidetuko du. **Borroka armatuak markaturiko 50 urte eta gero, eta, gatazkaren ondorioak kudeatzen iragan hamarkadatik landa, Mugimendu Abertzalea ziklo historiko batetik atera eta etapa berri batean sartzen da.**

Ezkerreko abertzaleek euskal preso politiko guziak askatzeko lehentasunezko helburua duen dinamikarekin segitzearen garrantzia azpimarratzen dute, eta baita gatazkaren erabateko konponbideari ekiteko arrazoi politikoei buru egiteko beharra ere.

## Euskal Hirigune Elkargoa

2017ko urtarrilaren 1ean, lehen aldikoz bere historian, Ipar Euskal Herriak ezagupen instituzionala lortu zuen Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearekin. Mendeetako aldarrikapenen eta hamarkadetako borrokaren ondotik, garaipen hau aktibazio soziala eta lan instituzionala artikulatzen dituzten dinamika militanteetan abertzaleen inplikazioari esker eraiki eta gehiengoak duten adostasun politiko eta sozialen fruitua da. Estatus Bereziko Lurralde Kolektibitatearen alde lurralde eragileen gehiengoak eginiko hasierako aldarrikapena ez zuen Frantses Estatuak onartu. Dena den, Euskal Hirigune Elkargoa aldarrikatzen zena baino maila apalagoko proposamena izan bazen ere, aitzinapauso historikoa da.

Euskal Hirigune Elkargoaren lortzeak, beraz, aitzinapauso erabakigarria ekarri zuen urrats giltzarritzat jotzen dute abertzaleek: Ipar Euskal Herriaren lehen aitortza politikoa, lurralde komun bateko kide izatearen sentimendua, abertzaleen proiektuaren ikusgarritasuna, baina baita zerbitzu eta politika publikoena ere.

Pertzepzio baikorrarekin batera, haren mugen kontzientzia ere hedatzen ari da: Ipar Euskal Herriaren burujabetza bermatzeko eskumen urriegiak, gobernantzaren gabezia demokratikoa edo lurraldeen arteko desoreka. Lehengo hamar herri elkargoen baturatik sortu zen hirigune elkargoa izanik, Euskal Hirigune Elkargoak herri arteko tresna izaera du. Lehen instituzio horrek, lurralde osorako ikuspegia osatzeko pausoak abiatu baditu, lurralde proiektu baten mesedetan herrietako interesak gaintitzeko nekeziak ditu.



Azkenik, nolabaiteko ez ezagutza ere nabari da, biztanleen eta instituzio honen arteko harreman zuzenagoa izan behar litzakeelarik.

Tresna honetan inplikatzearen eta tresna honen hobetzearen garrantzia azpimarratuz, abertzaleek lurralde kolektibitate bilakatzeko nahia adierazten dute.

Mugimendu Abertzaleko erakundeek Ipar Euskal Herriko errealitateari egokitua den lana eraman dute. **Euskal Hirigune Elkargoaren lortzeak lurralde komun bateko kide izatearen sentimendua indartzea ahalbidetu zuen. Ipar eta Hego Euskal Herriko eragile eta herritarren arteko harremanak gero eta ohikoagoak dira. Hala ere, erakunde milianteen barnean, nazio eraikuntzaren dinamikaren bizitasuna apaldu da.** Euskal Hirigune Elkargoaren lortzeak, bere mugaz gairik eskumenarekin, oraino aski baliatuak ez diren aukera berriak zabaltzen ditu.

« Pertzepzio baikorrarekin batera, haren mugen kontzientzia ere hedatzen ari da: Ipar Euskal Herriaren burujabetza bermatzeko eskumen urriegiak. »



# Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalea

Aniztasun indartsua izateaz gain (adina, generoa, estatusa, lurraldea, jatorria, inplikazio eremua, etab.), **Mugimendu Abertzaleak apustu handietan batasuna erakusten du, gai askotan kohesioarekin jotuz.** Azken urteotan eraman dinamika militanteen eta Mugimenduaren oinarriaren arteko egokitasuna ikusten da, borrokan aurrerapena eta haiek aurrera eramateko modua positiboki baloratzen dituen.

Nahiz eta garaiko jendarte joerek eragina izan, Mugimendu Abertzalea salbuespen gisa agertzen da bere indar militantearekin. Engaiamenduaren kultura bizirik atxikitzen du, talde lanaren kultura, atsegin iturri dena, baita alaitasun, kidesun eta zentzu iturri ere, eta balios izatearen sentipena ematen duena. Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalea ez dabil politikarien boluntarismoaren gibeletik, ezta Garaipen Egun Handiaren beha ere. Engaiamendu zehatzak proposatuz jotzen du eguneroko praktika eraldatzaileen bidez. Bestalde, apustu unibertsalak eguneratzeko eta bereganatzeko gaitasuna erakusten du, borroka garaikideetan integratuz.

## Mugimendu Abertzaleak sekulako eragina du

Sei hamarkadako borroka bizien ondotik, Mugimendu Abertzalea hegemonia kulturala irabazten ari da eraldaketa politiko eta sozialeko espazioetan. Haren ideiak indarra hartzen ari dira eta herri eragileek zein ordezkari politikoei bereganatzen dituzte (AHT, etxebizitza, lurra, euskara, klima, tokiko garapena, laborantza herrikoia, migratzaileak, feminismoa, mugen irekitzea...).

**Borroka abertzalea ez da gehiago bazterrekoa. Aitzinatzen ari da eta joera hori azkartzen ari da. Haatik, ez da oraino gehiengoaren egoeran. Ez du gehiago etsaitasun orokorturik pairatzen, baina ez du herritar gehienek babesa biltzen ere. Azken horiek, frantses zentro-eskuinarekin lerrotatzen segitzen dute nagusiki.**

Ondoko urteetako erronka, bitarteko posizio hortatik ateratzea, eta Ipar Euskal Herriko biztanle gehienen iritzia borroka abertzalearen alde kokatzea izanen da.

Abertzaleek eraman ideiek gero eta babes gehiago lortzen badute ere, izugarri kostatzen da praktikara ekartzea eta errealitatea aldaraztea. Zenbait erasok beti irauten dute (euskara, etxebizitza, laborantza herrikoia...). Erakunde abertzale batzuek baztertuak izaten segitzen dute instantzia publikoetatik zein erakunde militanteetatik, hala nola, sindikalgintzan edota arlo sozialean, nahiz eta gero eta ulertezinagoa izan jendartearentzat. Aherio politiko eta mediatiko batzuek lurraldetasuna ukatzen eta desitxuratzen segitzen dute, Ipar Euskal Herriaren perimetroa zalantzan jarriz. Deus ez dugu aitzinetik irabazia, eta Frantziako agintariak zein administrazioek ez dute deus oparitzen. Aitzitik, dena zutik atxikitzen da eta irabazten ahal da milaka abertzaleren mobilizazioei eta iraunkortasunari esker.

Lurraldearen berezitasuna ez da kulturala, linguistikoa edo geografikoa bakarrik. Frantzian iritzi publikoa eskuin muturreko ideietara gero eta gehiago lerratzen den bitartean, Ipar Euskal Herria dinamika eta praktika kolektibo aurrerakoiengatik nabarmentzen da (euskararen defentsa, migratzaileen harrera, AHTaren kontrako borroka, tokiko garapen ekonomikoa, laborantza herrikoia, borroka ekologistak, sozialak...).

Ezkerreko indar politiko abertzaleek hurbilketa eta bateratze lan bat burutu dute, tresna politiko bakar bat bideratu duena: EH Bai. Hauteskunde mailan, abertzaleek eraman hautagaitza irekiek, baita EH Baikoek ere, sekulan ikusi gabeko garapena erakusten dute.

Hauteskundeetan lortu den hazkundeak gero eta gehiago botere publikoen zuzendaritza guneetara bultzatzen ditu ezkerreko abertzaleak. Haatik, gehiengo politiko eta soziala urrun da oraindik, eta aktibismo ziklo tematsu anitz beharko dira hori lortzeko. Ipar Euskal Herria zentro-eskuineko kultura politikoan dago oraino nagusiki.

Ezkerreko abertzaleak lehen indar abertzalea dira, lurraldeko lehen indar ezkertiarra, eta zentro-eskuineko gehiengoaren gibelean kokatzen dira. Alternatiba politikoaren ordezkari gisa agertzen dira gero eta gehiago.

Ezkerreko indar politikoak desegiten ari dira Frantzian eta erakargarritasun eskasa dute. Errealitate mediatikoek eta agenda politikoek doi-doi bizirik atxikitzen dituzte noizbehinka argitan ezarriz. Ezkerreko abertzaletasunak luzaz haiekin moldatu behar izan du, aliantza jokoen bidez, bere aldarrikapenak agerrarazteko. Gaur egun, ekuazioak eta orekak aldatzen ari dira. Orain, ezkerreko abertzaletasuna ez da gehiago hauteskunde garaiko egokitze aldagaia.

Ezkerreko abertzaleek gutxiengoa izaten jarraitzen dute hiri gotorretan, baina haien goratzeak eta Frantziako ezkerreko erakundeen gainbeherak pentsatzera ematen dute ondoko urteetan han ere indar harremana haien alde bilaka daitekeela.



# Ondoko hamarkadako eginkizun historikoa

Azken sei hamarkadetan zehar, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak garapen fase handiak izan ditu.

**1960**

1960ko hamarkada Mugimenduaren sorreraren garaia izan zen, baita lehen dinamiken abiaraztearena ere aiherkunderik handienaren parean.

**1970**

1970eko hamarkada ezker muturreko abertzaleen agerpena izan zen, lehen alternatiba ekonomiko zein kulturalena, lehen ikastolarena, Hego Euskal Herriko iheslarien harrerarena eta haien kontrako errepresioarena.

**1980**

1980ko hamarkada Estatuaren eta erakunde parapolizialen indarkeriarena izan zen, borroka armatuaren areagotzearena eta Ipar Euskal Herriko dinamika politikoena.

**1990**

1990eko hamarkada dinamika militanteen eskala aldaketarena izan zen, lehen tresna proto-instituzionalen lorpenarena, onarpen instituzionalaren aldeko kanpainena.

**2000**

2000ko hamarkada ezkerreko abertzaleen arteko zatiketarena izan zen, gazte abertzaleen aurkako zapalkuntza gogorarena, langileen eta laborarien borroken gorakadarena.

**2010**

2010eko hamarkada borroka armatuaren bukaerarena eta haren ondorioen kudeaketarena izan zen, EH Bairen baitan indar abertzaleen batasunarena, burujabetasun materialetarako alternatiben ugaltzearena, bereziki Euskal Hirigune Elkargoaren sorreran bukatuko ziren dinamika militanteen zabaltzearen hamarkada.

Ipar Euskal Herrian, Mugimendu Abertzaleak ezkerrearen gidaritza hartua du. Daraman jendarte proiektuari esker, bere aldarrikapenei eta besta giroko praktikei zein herri problematikekiko duen loturari esker, protagonista nagusi bilakatua da. Haren proiektu integralak jendartearen eta publikoaren sektore berriak erakartzen ditu, frantses indar progresisten baitan engaiatzeko interesik gehiago ikusten ez dutenena, hain zuzen.

Mugimendu Abertzaleak eskalaz aldatu behar du eta horretarako nehoiz ikusi gabeko baldintzak dauzka. Militante berriak sarrarazi behar ditu, sarbideak proposatuz eta borrokaren oinarriekiko sentsibilizatuz. Hau guziaz beharrezkoa da Mugimendu Abertzaleak berrituz iraun dezan.

Hurrengo hamarkadan, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen ardura historikoa hau izanen da:

**LIDERGOA**

Lurralde osoan lidergo sozial eta politikoa hartzera prestatu;

**HERRI BLOKEAK**

Indar progresistekin batera, gehiengoa duten herri blokeak eraikitzeko ekimenak sortu;

**INSTITUZIOA**

Estatuaren parean, indar harreman bat sortu, beharrezko instituzioa lortzeko xedearekin, euskal jendarte askea, euskalduna, berdinzalea, ekologista, feminista, aurrerakoa eta demokratikoa ekarriko duena.



# Abertza- letasuna XXI. mendean

Jatorriaren, hizkuntzaren ezagutzaren, generoaren, erlijioaren edo estatus sozialaren arabera bereizkeriarik gabe, ezkerreko abertzaleen ezaugarriak dira: euskal jendarte, aske, euskaldun, berdinzale, ekologista, feminista, progresista eta demokratikoa **eraikitzeko** nahikeria izatea ; **burujabetza politiko** maila gorenaren alde egitea aipaturiko jendarte proiektua plantan ezarri ahal izateko, helburu hauen gauzapenean **aktiboki parte hartzea** Mugimendu Abertzalearen modu anitzetako engaiamendu baten bidez.



# Abertzaletasunaren oinarri historikoak

## Euskara

Euskal Herria euskararen herria da. Bere lehen esentzia da, besterenezina. Euskara bizitzeko, Euskal Herriak euskaraz bizi behar du. Mugimendu Abertzalearen lehen zeregina aroetan zehar orain arte bizirik iraun duen euskararen transmisioari segida ematea da. Horretarako, Mugimendu Abertzaleak lurraldeko biztanle guzietan euskararen ikaskuntza eta erabilpena garatzea sustatzen du, herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna osatzeko asmoz.

## Nazioa, herria

Jartzen zaion izena edozein izanda ere, bere burujabetza politikoa eta autodeterminazioaren gauzatzea desio dituen Euskal Herriaren eskalako komunitate politiko, nazio edo Herri baten existentzia berresten dugu. Aspirazio honen jatorria iraganean sustraitzen da, baita ideia progresistak zein eskubide unibertsalak barnebiltzen dituen etorkizunerantz elkarrekin proiektatzeko borondatean ere.

## Nortasuna

Euskal nortasuna herri-errealitate bat da, lurraldearekiko zein haren ikurrekiko eta euskarekiko atxikimenduan oinarritzen dena. Harengandik ordezkatuak sentitzen diren eta hura bizi arazten duten guzietan eskura dago euskal kultura. Euskal kulturaren defentsa eta garapenaren beharra adierazten dugu. Izan ere, euskal kultura hau guziaz da Mugimendu Abertzalearentzat:

- Gizateriaren aberastasuna, folklorizazioaren, uniformizazioaren eta kulturaren merkantilizazioaren gainetik;
- Norbanakoei “komunitatea egin”, batera ekin eta gainerateko giza-komunitateekin harreman simetrikoak izateko parada ematen dien funtsezko lotura eta oinarri komuna;

- Agintari politikoek zein gutxiengo nazionalekiko eta multikalarismoarekiko intoleranteak diren talde erreazionarioek daramaten kultura, hizkuntza eta nortasunaren zapalkuntzaren aurkako babesa;
- Etengabeko mugimenduan den mundu baten, herritarrei “nonbaitekoa” izateko eta alteritate errespetuz ikusteko parada ematen dien errotzerako elementu bat.

## Euskal Kultura

Tradizio komunitario indartsu batetik eratortzen den bizitzeko, izateko eta egiteko eredu propioa da Euskal Herriaren bereizgarria. Elkarbanatzea, elkartasuna, parte hartzea eta auzolanaren sozializazioa oinarri dituen kulturak eragiten du euskal herritarrek kate bakarraren katebegi aktiboak izatea. Kultur-ekimenetan emankorra den lurralde honek hezkuntza herrikoa, kontzientzien garapena eta errealizazio pertsonal zein kolektiboa obratzen ditu. Mugimendu Abertzalearen baitan bizi diren balore eta praktikak dira hauek. Iraganetik herentzia bat baino gehiago, garatu eta transmititu beharreko aberastasun komunak dira beretzat.

## Lurraldea

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko herrialdeetan garatzen du bere jardura; betiere, euskal lurraldeak birbatuz Zazpiak Bat eskalan osatuko litzatekeen euskal konfederazioaren norabidean; azken hau, Herrien Europaren baitan kokatuko litzateke. Ipar Euskal Herriko herrialdeei eta errealitateari egokituriko estrategia eta dinamikak garatzen ditu.

## Burujabetza

Burujabetza oso eta integrala kausitzea da abertzaletasunaren ortzimuga: burujabetza herritarren erabakitze gaitasun politikoa bermatuko duten tresna instituzionalei dagokienez; ta burujabetza arlo guzietan: elikadura, energia, fiskalitatea, ekonomia, arlo soziala, arlo mediatikoa, teknologia, osasuna... Bi forma horiek banaezinak eta beharrezkoak dira Euskal Herriaren burujabetza lortzeko.

## Independentzia eta interdependentzia

Euskal jendarteak, beste herriekin izan nahi dituen interdependentzia harremanak manera libre eta independetean erabakitzeko duen eskubide unibertsala aldarrikatzen du Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak. **Horretarako, abertzaletasunaren ortzimuga Herriari boterea itzultzea da, Euskal Herriari burujabetza politiko maila maximoa emanen dioten tresna instituzionalak eskainiz.** Nazio-estatuaren ereduak mugak erakusten baditu, munduko ordenaren egungo egoeran, herrien burujabetza politiko maximoa oraindik estatu independente baten bitartez lortzen da.

## Berdintasuna ezberdintasunean

Borroka abertzalea ez da ezberdintasunaren edo partikularren aldekoa, berdintasunaren aldekoa baizik. Euskal Herritarrek, munduko gainerateko herri guzietan bezala haien geroaz erabakitzeko duten askatasun berdina izatea da helburu historikoa, ez gehiago, ez gutxiago.

**Mugimendu Abertzalearen aburuz, euskal aberastasun soziokulturala gizateriaren ondarearen parte da, eta honen aniztasunari ekarpena egiten dio. Uniformizazioaren aurka egiten du. Bere arabera, aniztasunaren aitortzan datza kulturen arteko berdintasuna.** Hortaz, bere kultura eta hizkuntza aberastasuna garatzeko politikak plantan ezartzeko askatasuna behar du euskal jendarteak.

## Internazionalismo humanista da abertzaletasuna

Borroka abertzalea internazionalista da. Nazio zapalkuntzaren bukaera eta herriek burujabe izateko duten askatasuna aldarrikatzen ditu Euskal Herrian zein hortik kanpo. Zapalkuntza nazionala zein soziala pairatzen duten eta haien burujabetza lortzeko borrokan ari diren herriek elkartasuna adierazten die. Askapen nazional eta sozialerako mundu mailako mugimendu bati ekarpena egiten dio ezkerreko abertzaletasunak. Euskal Herriko lurretan, abertzaletasunean gorpuzten da internazionalismoa. **Abertzaletasuna humanista da. Gizateriak, gizalegez kanpoko ekintza guzietan aurka egiten duen borroka luzearen baitan kokatzen du bere burua. Norbanakoen zoriona eta haien errealizazioa ditu helburu.**

Kontinenteen arteko elkartasuna eta mundu mailako berdintasunaren oinarria dituen herrien arteko harremanen garapenaren alde, dinamika altermondialistan parte hartzen du Mugimendu Abertzaleak.

## Demokrazia eta errepublika

Mugimendu Abertzalea errepublikarra da errotik. Hitz honek Parisen edo Euskal Herrian zentzu ezberdina hartzen duela jakin arren, Herriari eta soilik Herriari burujabetza ematen dioten erregimen politikoak babesten ditu.

Era berean, demokraziari atxikimendu dio, bai antolatzeko era gisa, bai bere helburuetara iristeko bitarteko gisa. Euskal Herriari eta bere geroari loturiko erabaki nagusietarako, ariketa demokratikoa eta herri galdeketa aldarrikatzen ditu.



# Oinarri ideologiko garaikideak

Euskal Herriak mendeetan paraituriko kultura, hizkuntza eta nortasun zapalkuntzek menderakuntza forma orrekiko sentiberatasuna eman diete abertzaleei. Ezkerreko abertzaletasunaren corpus ideologikoa aberastu da. Gaur egun, sozialismoarekin ez ezik, ekologiarekin eta feminismoarekin ere erabat loturik dago.

## Abertzaletasuna eta ekososzialismoa

Sozialismoaren oinarriko baloreekiko atxikimendua berresten du Mugimendu Abertzaleak. Ondare komun kudeaketa kolektibo eta demokratikoa defendatzen du, baita herritarren bizi-baldintzak hobetzeko kolektibizazioa interbentzio publikoaren eta alternatiben auto-antolaketa herrikoia ere. **Berdintasunean oinarrituriko jendartearen perspektiban, elkartasun kolektiboa eta “bakoitzak bere ahalmeneren arabera, bakoitzari bere beharren arabera”** maximaren arabera aberastasunen banaketa defendatzen ditu.

Askapen nazional eta sozialaren aldeko borroka txanpon beraren bi aldeak direlakoan dago. Borroka sozialista globalaren baitan kokatzen du bere burua Euskal Herrian eramanez.

Haatik, XXI. mendean, ezkerrek ezin du soilik aberastasunen banaketa eta ekoizpen bitartekoen jabetza aldarrikatu. Hazkunde eta ustiatze eredu produktibista osoki galdezkatu behar du. Ekologia eta sozialismoa uztartzen dituen ikuspegi ekososzialista batera joz, tarta hobeki zatitu behar da, baina batez ere, honen errezeta aldatu.

Planetaren izaera mugatua kontuan hartuz, larrialdi klimatikoaren aurka borrokari ekarpena egiten dion eta ekosistemen zein ondoko belaunaldien bizi-baldintzak zaintzen dituen berdintasunean oinarrituriko eredu ekonomiko batez ari gara, herritarren beharrei erantzunen diena (eta ez alderantziz).



## Feminismoa

Mota guzietako desberdintasunak deuseztatzeko borrokan, **Mugimendu Abertzalea feminista da.** Mikro-matxismotik, feminizidioetara, emazteak eta edozein pertsona, beren generoa edo orientazio sexualarengatik zapaltzen, minorizatzen, baztertzen eta bortxatzen dituen jendarte patriarkala gaingintzeko beharra aldarrikatzen du.

Mugimendu Abertzaleak lan erreproduktiboaren ezagupena eta partekatzea bilatzen du (etxeko lanak, haurren hezkuntza, behar material eta afektiboak...), baina batez ere zaintzaren, ongizatearen, erlazio harremanen eta errespetuaren jendarte inklusibo bateranzko eraldaketa osoa.

## Elkartasun inklusiboa

**Diskriminazio mota ororen aurka borroka egiten du Mugimendu Abertzaleak.** Haien herrialdeko baliabideen arpilatzeagatik, ezberdinkerian oinarrituriko trukeagatik zein zilegia ez den zorragegatik, aldaketa klimatikoaren mehatxuagatik edo iritzi, erlijio, jatorri, kolore edo haien integritateari loturik beste edozein irizpiderengatik bizi-baldintza duinak desjabetu zaizkien eta Euskal Herriatik iragan ala bertan bizi nahi duen pertsona migratzaile orori elkartasuna adierazten dio.

**Mugimendu Abertzaleak, betebeharrak eta eskubide sozial zein politikoaren berdintasuna bermatzen duen Euskal Herriaren ikuspegi babesten du.**

# Abertzaletasuna ekintzailletza anizkoitza da

Ezkerreko abertzaletasuna ez da mugatzen ideia emantzipatzaile edo helburu historiko batzuekin bat egitera. Praktikatzen eramatera lotua da. **Mugimendu Abertzalearen helburua ez da dagoena kudeatzea, eraldatzea baizik. Ezkerreko abertzaletasuna ekintzailletza eraldatzailea da.**

Indibidualismoak eta politikarekiko uzurtasunak ezaugarrituriko momentu honetan, lurraldeko herri mugimenduetan errotua den eta hauen dinamizazioan aritzen den oinarri militante biziki aktiboa du Mugimendu Abertzaleak. Mugimenduaren indargune nagusitzat hartu ohi den herritarren sektore zabalekin konektaturiko ekintzailletza honek zilegitasun handia ekarri dio azken hamarkadan.

Forma anitzetan gauzatzen den etengabeko engaiamendua da abertzaletasuna. Lehenik eta behin, diskurtsoaren eta bizi-praktiken arteko koherentziarekin: euskara ikasi eta erabiltzea, manera alternatiboan kontsumitzea, etxebizitza, moneta, energia, hedabideak kultura eta abar...

Abertzalea izatea, tresna konkretuak sortu (alternatibak, kooperatibak, instituzio paraleloak) sortzen dituzten eta borroka anitzak eramaten (mobilizazioak, manifestazioak, desobediencia ekimenak) dituzten kolektiboetan aktiboki militatzea ere bada.

Azkenik, hauteskundeetan eta instituzioen frontean egikaritzen den engaiamendu bat da abertzaletasuna. Tokiko instituzioetarako bozei (herriko etxeak, Euskal Hirigune Elkargoa) eta hauteskunde sindikalei (laborantza, langileak, alokatzaileak) garrantzia handia ematen dituen oinarri elektoralak du Mugimendu Abertzaleak.

Abertzaleek gero eta garrantzia handiagoa ematen diote beren borroka moldeekin bateragarria iruditzen zaien jarduerari instituzionalari. Fronte instituzionalean eta botere guneetan parte hartzen dute, haien iparrorantz militantea jendarte proiektuaren eta ireki nahi duten etapa insituzioanalaren norabidean mantenduz.



Euskara  
Nazioa  
Nortasuna  
Kultura  
Lurraldea  
Burujaletza  
Independentzia  
Interdependentzia  
Berdintasuna  
Desberdintasuna  
Internazionalismoa  
Humanismoa  
Ekosozialismoa  
Feminismoa  
Elkartasuna  
Aktibismoa  
Aniztasuna  
Eraldaketa



# Hamar- kadako helburu nagusiak

Instituzioa  
Euskara  
Etxebizitza  
Klima & Bioaniztasuna  
Soziala  
Laborantza

Antolakunde sektorialeiei edo tokiko dinamikei dagozkien berehalako parioez gain, Mugimendu Abertzaleak zerumuga komuna du. Hurrengo hamarkadarako anbizioa partekatzen du borroka osoaren garapenean eragin erabakigarria duten zeharkako helburuen inguruan. Bideorri honek, Bagiraren inkestan lehenetsi diren bost erronken helburuak kokatzen ditu. Ardatz horiekin batera, ezkerreko abertzaleek gogoetatu eta ekin beharko dute Ipar Euskal Herriko eredu ekonomikoaren etorkizunari buruz (sare ekonomikoak, lanpostuak eta formakuntzak berriz hona ekartzea), metamorfosi ekologikoaren beharrei erantzunez eta Euskal Herrian bizitzeko, lan egiteko eta erabakitzeo autogestio izpirituarekin bat eginez.

# Urrats instituzional berria

Mugimendu Abertzaleak, Euskal Hirigune Elkargoa baino burujabetza maila handiagoko instituzio bat lortzeko dinamika berri bat bultzatzea du helburu, herritarren beharrei erantzuteko eta Ipar Euskal Herriari erabakitzeke ahalmen eta burujabetza gehiago emateko. Hori lortzeko, Mugimendu Abertzaleak bide ezberdinak batera ahokatzeko dituen estrategia baliatuko du:

- Euskal Hirigune Elkargotik, Estatus Bereziko Lurralde Kolektibitatera iragateko jauzia sustatzea
- Ipar Euskal Herriarentzako autonomia estatutu bat aldarrikatzea
- Euskal Herri osoko urrats instituzional bat bultzatzea.

Hurrengo urrats instituzionalak:

- **Anbiziozko eraldaketak** burutzeko gai den erakundea plantan ezarri beharko du, lurraldeko problematika garaikideei eta herritarren arazo konkretuei erantzunen dien jendarte proiektu bati begira;
- Lurralde orekei buruz agertzen diren **kezkei erantzun** beharko die, baita herritarren eta haien ordezkarien parte hartzeari buruz agertzen direnei ere, herriei eta herriarteko lurraldeei leku bat utziz, hauek ekimenerako gaitasuna baitute;
- **Herritarren informazioa eta parte hartze politikoa** bultzatu beharko du - bereziki zuzeneko botoaren bidez - eta gaur Garapen Kontseiluan bildua den jendarte zibilari leku gehiago eman;
- **Euskal Herriko beste probintzien errealitatearekin lotu** beharko da; instituzioen arteko elkarlana eta hautetsien arteko harremanak bultzatuz, besteak beste Udalbiltzaren baitan bilduak;
- Problematika nagusien tratamenduan aitzinamendu adierazgarriak ekarri beharko ditu kompetentzia gehiago eskuratuz ondoko arloetan bereziki: **euskara, etxebizitza, klima eta bioaniztasuna, soziala, laborantza herrikoia eta laborantza lurrak;**
- **Eskumen fiskal propioa** eta erronken arabera interbentzio gaitasuna lortu beharko du.

Batera herri plataformaren bilanaren plebiszitu argia ikusirik, Mugimendu Abertzalea prest da jendarte akuilatze dinamika zabal batean berriz sartzeko.

Sinergiak aurkitu beharko ditu botere instituzional azkarrago baten beharra aldarrikatzen duten lurraldeko sektore-borroka nagusiekin zein lurraldeko hautetsiekin. Aldarrikapen instituzionalarekin batera, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak zeharkako bost ardatz nagusi eramanen ditu.

## Hamarkadako erronka nagusiak

### Euskara

Azken hamarkadetan burutu lan handiari esker, euskal hiztunen galera gelditu bada ere, 2021ean egin VII. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzek erakustera ematen dute euskararen biziraupena ez dela nehondik ere segurtatua, proportzioan euskaldun kopuruak beheititzen segitzen baitu. Gainera, gurea bezalako hizkuntza gutxituentzat bizi dugun testuinguru konplexuak eta urtero Ipar Euskal Herriat bizitzera etortzen diren milaka biztanle berrien migrazioak euskararen lekua etorkizunean beste perspektiba batekin aurreikustera eraman behar gaituzte. **Ondoko urteetan euskalduntze prozesuan jauzi bat egin nahi badugu, euskararen aldeko hegemonia soziala lortzea izan behar da helburu.**

- **Maila soziolinguistikoan: ondoko 25 urteetan biztanleriaren %30 euskal hiztun oso bilakatzea**

Euskalduntze prozesuaren bilakaera kontuan harturik, ondoko 20 urteetan euskararen biziraupena segurtatuko duen euskal hiztun kopurua %30era emendatzea beharrezkoa da. Unescoren arabera, ehuneko horrek bermatzen du hizkuntza baten biziraupena. Ipar Euskal Herriaren anbizioa helburu horretara heltzea izan behar da.

- **Maila ideologikoan: euskara etorkizuneko eta hizkuntza integratzaile gisa proiektatuko duen diskurtsoa eta iruditeri berria**

Euskara ez da nehor baztertzeko hizkuntza, are gehiago, Euskal Herrian bizi den herritar ororentzat erakargarria eta askatzailea izan daiteke, hots, ardatz egituratzailea. Helburu soziolinguistikoak galdegiten duen zabalkundea kontuan hartuz, Euskal Herrian bizi diren herritarrei euskarak zabaltzen dizkien aukeren leihoei buruzko diskurtso berritua garatzea erronketako bat da.

- **Maila juridiko/legalean: Ofizialtasuna helburu, euskararentzat tresna juridiko eta legal berriak eskuratu, egungo trabak gaindituz**

Baitezpadakoa da euskararen ezagupen ofiziala plantan ezarriko duen lege koadro bat. Babes legalak egungo politika boluntaristatik politika betearazle baterako urratsa egitea ahalbidetuko luke, baita hizkuntza eskubideen berdintasunerat heltzea ere. Autogobernu maila handiagoa bermatuko duen instituzioa behar dugu, neurri eta indar harreman indartsuagoetara pasa ahal izateko eta erabakiak bertan hartzeko. Ildo horretan, egun lau instituzioren artean banatua den hizkuntza politikaren eskumena Ipar Euskal Herri mailan kontzentratzea beharrezkoa da.

Frantziar Estatuak bere baitan gure hizkuntzaren biziraupena zailtzen dituen ezaugarri historikoak eta legediak dituela kontziente izanik ere, gaurdanik euskararen kontrako erasoak eta trabak altxatzeko ahaleginak egitea, eta Frantziako arautegian hizkuntza eskubideak bermatzen dituzten neurriak bideratzea izanen da erronketako bat.

- **Maila politikoan: akordio sozio-politiko zabala Ipar Euskal Herriko jendartean eta Estatuarekiko konfrontazio indartsuagoa**

Oraino kontrako adibide nabarmenak dauden arren, euskararen kontrakotasunetik aldekotasunera pasa gara. Testuinguru hori baliaturik, euskararen aldeko akordio sozio-politiko zabala eraikitzearen alde egiten du Mugimendu Abertzaleak. Adostasun horrek euskararen biziberritze prozesuak galdegiten duen jauzia egiteko funtsezkoak diren engaiamenduak jaso beharko lituzke.

Ipar Euskal Herrian gehiengo bat osatu behar da, karrikan manera zabalean mobilizatuko dena eta instituzioetan islatuko dena. Hizkuntzaren auzian Estatuak da oztopo nagusia eta gehiengo baten borondatearen adierazpenak konfrontazioa eragin behar du oztopoak altxatzeko.

- **Maila operazionalan: hizkuntza politika publikoak eta euskarari lehentasuna**

Hizkuntza politika berriaren hiru irizpideak hauek izan behar direla uste du Mugimendu Abertzaleak:

- euskararen ezagutza masifikatzea murgiltze eredia orokortuz haur guzientzat, baita euskarazko aisialdiak eta helduen irakaskuntza garatuz ere;
- euskararen erabilera zabaltzeko neurriak hartuz egitura publiko guzietan;
- euskararekiko atxikimendua eta aldekotasun soziala azkartzea, haren prestigioa landuz erdaldunak euskarara erakartzeko.

Lurraldearen diglosia eta aldagai demografikoa kontuan harturik, ondoko hamarkadan erakunde publiko guzietan hizkuntza politika berriak plantan ezarri behar dira, Ipar Euskal Herri mailan eta Herriko Etxe guzietan, manera koordinatuan.

Azkenik, ondoko urteetan euskararen arnasgune diren proiektuak azkartzea eta berriak sortzea baitezpadakoa izanen da.

## **Etxebizitza**

Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren eta lurzoruairengo egoera kritikoak Euskal Herrian etxebizitza izateko eskubide indibiduala eta herrian bizitzeko eskubide kolektiboa mehatxatzen ditu. Borroka honetan, Mugimendu Abertzalearen engaiamendu azkarrak anitz lagundu du herritarrak eta hautetsiak kontzientzizatzen. Mobilizazio kolektibo horri esker, lehen aitzinamendu esanguratsuak egin dira, nahiz-eta ez diren aski.

**Heldu den hamarkadan abiadura handiagoa hartu beharko du.**

- **Lurralde esperimental**

Ipar Euskal Herria lurralde esperimental gisa izendatu behar da, bertan dispositibo berritzaileak ezartzeko eta pairatzen ari den etxebizitzaren krisiari buru egiteko: etxe eta lurraire salmenta prezioaren mugatzea; salmenta espekulatiboaren eta bigarren bizitokiaren gaineko disuasio-zerga; hirigintza dokumentuetan bizileku nagusiaren aldeko betebeharrak; egoiliar estatutua; etxebizitza sozialen kuoten kalkulua (loi Solidarité et Renouveau Urbain - SRU) herriko etxebizitza kopuru osoaren gainean finkatzea, eta ez egoitza nagusien kopuru osoaren gainean...

Etxebizitza politika osoa Ipar Euskal Herriko kolektibitateen eskuetan egon behar da, bereziki bi helburu gehigarriekin: etxebizitza politikak lurraldean orekatzea, bereziki Zero Artifizializazio Garbiaren ikuspegitik, eta etxebizitzaren ekoizpen jasangarriaren dinamika bat, eraikin arin eta iraunkorreko karten izpirituan, artisau eta enpresentzako prestakuntzak lagundurik.

- **Etxebizitza hutsen berreskuratze politika boluntarista**

Organismo baten sortzea lortu behar dugu, Euskal Hirigune Elkargo edo etorkizuneko instituzioari lotua, hutsik dauden bizitokiak zerrendatuko dituen eta iraunkorki hutsik dauden etxebizitzak berritu eta urte osoan alokatzeko ingeniarietza juridiko, tekniko eta finantzarioa proposatuko duena. Eta epe motzean, trantsiziozko hirigintza politika bat aldarrikatu behar dugu, larrialdi aterbeteak, aldi baterako bizitokiak edota espazio kolektiboak biderkatu ahal izateko, soziala, ekonomia eta kulturaren arteko gurutzatzeak errentuz.

- **Hurbileko fiskalitatea**

145. Instituzio urrats berri bati begira beste erronka estrategikoa da hurbileko fiskalitatea lortzea, lur eta higiezinaren arloan. Horren helburua higiezinaren espekulazioa eta bigarren etxebizitzaren ugaritzea geldiaraztea izan da, bereziki gainbalio espekulatiboaren gaineko zerga batekin; bigarren etxebizitzaren gaineko egiazko zerga batekin; edo halakorik lortu ezezan, bizitegi zerga, eraikitako lurren gaineko zergatik bereiztea; eta Departamenduak biltzen duen aldakuntza-zergen zatia berreskuratzea. Instituzio berriak hurbileko fiskalitate horren diru-sarrerak bideratzeko ahalmena izan beharko du, etxebizitza sozialak sustatzeko, etxebizitza-parkearen berritzeko eta - lurralde-elkartasunaren logikari jarraiki - laborantza lur, karbono-metatze eta biodibertsitateko erreserben diruz baloratzeko.

- **Hirigintzako tokiko plangintza (PLU) eta Herrien arteko hirigintzako tokiko plangintza (PLUi) boluntaristak**

Epe motzean, lortu behar dugu delako PLU eta PLUi plangintzak gutxienez errespetatu dituzten SRU Legea, Bizilekuaren Tokiko Plana (PLH) eta Lurralde Koherentziaren Eskema (SCOT) bezalako norabide dokumentuak, eta sozial ikuspegitik ambizio handiak izan dituzten.

## **Klima eta bioaniztasuna**

Euskara edo laborantza herrikoia bezala, klima eta bioaniztasuna ondare amankomunak dira. Nehorenak izan gabe, denentzat onuragarri eta ahalegin kolektiboaren bidez iraunkor bilakarazi behar dira. Amankomunen defentsa horretan aitzindari diren abertzaleak, gaur egungo erronkei erantzuteko bultzatzaile nagusiak izan daitezke burujabetza konkretu berriak eraikitzen segituz.

Ezin da metamorfosi ekologiko eta soziala beste arloetatik bereizirik pentsatzen ahal. Gai guztiak molde transbertsalan landu behar dira, hala nola, elikadura edo artifizializazioaren kontrako borroka. Bi eremu horiek ezinbestekoak dira karbonoaren neutraltasunerantz aitzina egiteko eta biodibertsitatea zaintzeko.

- **Metamorfosi ekologiko justu eta soziala**

Fiskalitatea jendartea ekologikoki iraunkorra den funtzionamendurantz eramateko eta jendarte-desberdintasunei buru egiteko ezinbesteko palanka da. Hala ere, gaizki pentsaturiko fiskalitate ekologikoa antisoziala izan daiteke. Beraz, birbanaketa neurriak behar ditugu alde batetik ahulenak laguntzeko eta bestetik aterabide iraunkorrak garatzeko (garraio publikoa, eraikinen isolamendua, etab.). Ipar Euskal Herriaren eskala garrantzitsua da halako birbanaketa neurriak ezartzeko: gure instituzioek kudeatu behar dute fiskalitate ekologikoa.

- **Uraren eta lurren kudeaketa ekosistemikoa**

Ondoko hamarkadetan, ur baliabidea nabarmen murriztuko da Euskal Herrian eta horrek eragin handia izanen du. Ezinbertzekoa izanen da laborantza lurretan eta hirietan euria ahalik eta gehien atxikitzea; eta artifizializazioa erabat gelditzea, karbonoa harrapatzen duten oihanak eta hezeguneak babestuz, garatuz eta sendotuz, karbono neutraltasunera heltzeko.

- **Burujabetza energetikorantz**

Energia berriztagarrien ekoizpena ez da berez helburu bat izan behar. Energia-kontsumoaren murrizketarekin batera, berriztagarriak bi palanketako bat ordezkatzeko dute oreka energetiko batera hurbildu eta 2050ean karbono neutraltasuna lortzeko. Gure energia kontsumoa eta ekoizpena



lokalki eta demokratikoki definitzen dituen lurralde mailako autokontsumoaren ereduaren alde egiten du Mugimendu Abertzaleak. Horretarako, Ipar Euskal Herriak komunitate energetikoa bilakatu behar du, Energiaren Europa horrelako entitateen inguruan egituratzen ari den garaian, eta Hego Euskal Herriarekin batera eredu ekonomiko energetiko bertutetsu bat eraiki behar du.

- **Mugikortasunaren paradigma aldatzea**

Ipar Euskal Herri - Aturri Mugikortasunen. Sindikatuak (SMPBAK) ez ditu gaitasun guziak eta etengabe borrokatu behar du autoaren tokia murrizteko edozein neurriekin uzkur diren auzapezekin. Politika proaktibo bat aitzina eramateko, SMPBAK mugikortasun-gaitasun guziak berreskuratu behar ditu eta loturiko diru-sarrerak esleitu behar zaizkio, aparkalekuak adibidez, mugikortasunaren trantsiziora bideratzeko.

- **Gobernantza parte-hartzailea**

Egungo instituzioen gardentasun faltak ez dio jendarte zibilari bere eginkizuna osoki betetzen uzten. Hori konpontzeko, trantsiziorako gobernantza parte-hartzailea behar dugu (Garapen Kontseilua bezalako instantziak indartuz), berehalako erabilera gatazkak aitzinikustea ahalbidetuko duena (ozeanoaren eta uraren inguruan bereziki).

- **AHTren kontrako borroka irabazi**

Erronka anitzen muinean, Parisek eta Madrilek tokiko biztanleen kontra inposaturiko behar gabeko proiektu handi baten inguruko borroka hau sinbolo mobilizatzailea da eta irabazi behar da.



## **Soziala**

Borroka sozial berriak bultzatzeko, eta ezkerreko haustura politika praktikan ezartzeko, funtsezkoa zaigu Ipar Euskal Herria tresna egituratzailez eta erabakitzailez hornitzea. Lurraldeko biztanleen bizi eta lan baldintzak hobetzea eta helburuak finkaturik, haien beharretarik ahal bezain hurbil aritzea da gakoa.

- **Behatoki sozial bat sortu**

Politika sozialen gaur egungo konfigurazioak ez du lurraldeko datuak eskuratzeko aukerarik ematen. Departamendu mailan diluituak dira eta ez dute tokiko egoera irakurgarri uzten. Gure errealitate soziala neurtzeko tresnak behar ditugu (diru sarrerak eta laguntza sozialen hartzaileak, deslotuak eta baliabiderik gabe dauden gazteak, lan baldintzak, lanpostu eremuaren egoera, eskubideei uko egiten dieten pertsonak, janari eskasia egoeran daudenak, aterpegabeak...). Behatoki hori funtsezkoa da dagoena aztertzeko zein beharrak eta hartu beharreko neurri sozialak definitzeko.

- **Eskumen soziala transferitu**

Eskumen sozialak maila ezberdinetan eramanez dira: Frantziako Estatuak, departamenduak eta hiriguneak. Proiektu sozial bat eramateko eta biztanleen beharrei hobeki erantzuteko, funtsezkoa zaigu gaur egun departamenduak dituen eskumen sozialez hornituak izatea. Eskumen horiek Ipar Euskal Herrira ekartzeak eta bertan finantzatzeko erreferentzia soziala ekarriko du (solaskide nagusia izanez), biztanleek beren errealitateari egokituriko (kostaldearen eta barnealdearen arteko oreka, elkarte eta proiektu esperimentalei laguntza) estrategia bat lantzea eta obratzea ahalbidetuko du.

- **Hauteskundeak lurralderatu**

Ipar Euskal Herriko erakundeen pisua ere departamendu mailan kalkulatu da. Emaitzek ez dute lurraldearen errealitatea erakusten. Sindikatu, alokatzaile zein laborantza sailtako hauteskundeak bertakotzeak, beren eremu naturalean aurkezten diren erakundeen egiazko pisua kalkulatu ahalbidetuko du, baita biztanleen errealitateak hurbilen dauden aldarrikapenak aurkeztu, negoziatio kolektiborako tokiko instantzia parekideak sortu, egiazko indar harreman bat eraiki eta biztanleen bizi eta lan baldintzak hobetzeko neurri zehatzak plantan ezartzea ere (eskubide

sindikalak enpresa txiki eta ertainetara zabaltzea, lanaldia murriztea, 65 urtetik gorako alokatzaileak babestea...).

**Bukatzeko, Ipar Euskal Herriko jendarte kohesioak existitzen diren eskumenetatik harago joan behar du. Elkartasun mota guztiak hartu behar ditu kontuan, eta proiektu aurrerakoi bat sustatu behar du, orientabide berriak proposatuz, hala nola hazkurri jendarte segurantz, zerbitzu publikoak zabaltzea, migratzaileentzat harrera proiektu orokor bat sortzea, 25 urtetik beherako gazteei, hirugarren adinekoei eta elbarrituei laguntza sozial bat ematea.**

Gutxieneko tresna horiek ezinbestekoak dira epe ertainean politika publiko batzuk gureganatzeko eta zuzentzeko. Pairatzen ari garen sistema neoliberalaren ondorio kaltegarri guztiak ez dituztenez konpontzen ahalko, horrekin batera, mobilizazio soziala mantentzea ezinbestekoa izanen da.

## **Laborantza herrikoa eta lurren defentsa**

**Laborantzak, Ipar Euskal Herrian, leku garrantzitsua du. Sektore dinamikoa izaten segitzen du eta lurraldean ekarpen baikorra egiten du: janari ekoizle da, enplegu sortzaile, ingurumen zaintzaile, kultura kolektiboaren eta ehun sozialaren parte hartzaile aktibo, euskararen ekarle...**

Hala ere, honen bizirik iraunarazteko eta garatzeko eginbeharrak beti hor dira. Laborari munduaren krisi larriak, berehalako eta epe laburreko erantzunez harago, sakoneko aldaketak eskatzen ditu.

### **• Laborantza herrikoi eta iraunkorrari lehentasuna**

Laborantza ereduaren lehia batean gaude. Laborantza industrialak kantitate handietan ekoiztera bideratua da, kalitatea, ondorio sozialak eta ingurumenari buruzkoak kontuan hartu gabe. Gaurko erroka eta desafioen parean, eredu hori porrotera kondenatua da. Ipar Euskal Herrian garatu beharrekoa den laborantza herrikoi eta iraunkorraren ereduarekin bateraezina da. Laborariak transizio horretan lagundu behar dira.

Laborantza herrikoi eta iraunkorrak lurralde guzian banatuak diren ahalik eta laborari gehienei beren lanaz

duinki bizitzea segurtatu behar die, neurri humanoa duten etxaldeetan elikadura sano eta kalitatezkoa ekoiztuz, etorkizuneko baliabide naturalak agortu gabe.

### **• Laborantza lurren zaintzea eta etxaldearen transmisioa**

Lurren gaineko presioak laborantza mehatxatzen duelako, PLUi planoetan, laborantza lurra janaria ekoizteko lehenetsi behar lirateke, 2050erako Zero Artifizializazio plana errespetatuz. Bide horretan, Mugimendu Abertzaleak ondoko hamar urteetan lurren artifizializazioa erdiz ttipitzeko ahaleginean eragin beharko du.

Lurra laborarien esku egon dadin (indibidualki edo kolektiboki), salerosketa merkatua kontrolatu behar da eta espekulazioa baztertu, Lurzaindia bezalako tresnak indartuz adibidez.

Laborari eta etxalde anitz izateak lurralde baten bizitasunean eragiten du. Horregatik, etxaldearen transmisioa erroka nagusi bat da gaur egun. Jende berria (hiri zein landa eremuetakoak) laborari ofiziora erakartzeko eta laguntzeko lan berezi bat egitea beharrezkoa da.

### **• Elikadura burujabetza: bertan ekoiztua, bertan jana**

Elikadura burujabetza, herriko biztanleen elikatze beharrak bertan ekoiztean datza. Merkataritza librearen arauekin ez du bat egiten.

Ekoizpenen egokitzea suposatzen du. Ipar Euskal Herrian, pentze eta mendi gunek balorizatzen dituen hazkuntza nagusitzen da. Horrekin batera, beste ekoizpen batzuk garatu beharko dira (barazki eta fruituak bereziki). Politika publikoek bilakaera hori bultzatu eta lagundu beharko dute.

Burujabetza logika honek kontsumo moldeen egokitzea ere suposatzen du. Herritarrek eta kolektibitateek plateren barnekoa aldatu beharko dute lurraldean ekoiztua denaren arabera.

Lekuko ekoizpenak eskuratzeko bidea erraztu beharko da sareak biderkatuz, eta ekoizpen horien identifikatzeko ezaugarriak argituz, erosleak bideratzeko gisan. Elikadura burujabetza Euskal Herri mailan pentsatu eta gauzatu behar da, bai kontsumoari dagokionez, bai ekoizpenen komertzializazioari dagokionez.

Bestalde, Mugimendu Abertzalea, lurralde batzuetan esperimentatzen hasi den “hazkurri jendarte segurantzaren” iniziatiban inplikatu behar da. Horrela, kalitatezko elikadura denen eskura ezartzen da, edozein izanik haien irabaziak.

### • **Laborantza herrikoi eta iraunkorra garatzeko tresnak**

Laborantza borrokak azken hamarkadetan etsi gabe engaiatu diren laborari militanteen gainean eta jendarte zibilarekin eramandako elkarlan emankor baten gainean oinarritzen dira. Laborantza herrikoia bultzatzen duten elkarte eta ekoizpen sailak lekuko garapenaren eragile garrantzitsuak dira.

Berrikitan, Euskal Hirigune Elkargoak laborantzaren eskumena hartu du baliabide biziki mugatuekin: ahalmen errealik eta anbizio argirik gabeko laborantza batzorde bat.

Laborantza politikak Euskal Herritik kanpo definituak dira, estatu edo Europa mailan. Eskualdeak ere esku garrantzitsua du PAC laguntzen parte baten kudeaketan.

Ipar Euskal Herriak, bere laborantza eta elikadura politikak erabakitzeko, eskumen gehiagoko tresnak erdietsi behar ditu:

- lehen urratsa, arloko eragile guztiak bilduko lituzkeen Erakunde Publiko baten sortzea;
- bigarrena, laborantzan eta elikaduran gaitasun askoz haundiagoak lituzkeen Lurralde Kolektibitate bat lortzea.





# Estra- tegiak eta prak- tikak



# Estrategiak

## Printzipio estrategiko nagusiak

Mugimendu Abertzaleak estrategia anitzetara jo du bere historian zehar. Hauek sistematikoki definitu ditu beren beharraren eta eraginkortasunaren arabera, indar harremanen eta testuinguru aukeren arabera.

Gaur egun, inork ez du borroka armatua Euskal Herriaren burujabetza irabaztea ahalbidetuko lukeen estrategitza hartzen. Kataluniaren adibideak ere erakusten du alde bakarreko haustura demokratikoaren bidea krisian dagoela. Gaur egungo testuinguruan, ez dirudi estrategia bakar batek balio duenik Garaipen Egun Handia lortzeko erabateko eta berehalako bukaera baten bidez. Jalgibidea ez da kolpe batean jokatu.

**Bere xedeak lortzeko bidean, borroka abertzaleak progresiboki aitzinatzea pentsatu behar du, ahal bezain zalu eta modu adierazgarrian aitzina egiteko aukerak mobilizatuz. Prozesu iraunkor eta etengabekoa da, ofentsibak antolatzea eta aukera taktikoak zein azeleratze historikoak baliatzea behartzen duena, aldi berean egiturazko indar harremana elikatuz, garaipen zehatzak lortuz eta jarrera abertzaleen aitzinatzearekin segituz.**

Edozein momentutan, eta edozein egoera izanik ere, Mugimendu Abertzaleak lehenetsiko ditu prozesu orokorraren aitzinatzea ahalbidetzen duten aukerak, epe laburreko hautu edo apustu partzialen orde.

Mugimendu Abertzaleak ez du bere interes propioa defendatzen, ez eta osatzen duten erakunde edo militanteena ere. Bere ideien garaipena du helburu, sustatzen duen jendarte proiektuaren gauzatzea, eta Euskal Herriaren zerbitzura jartzen da. Horretarako, lehen indar politiko bilakatu nahi du, ez bakarrik eremu politiko-instituzionalean, baita eremu guzietan ere: militanteena, elkarreana, sindikatuena, ekonomiarena, kulturarena, eremu mediatikoan...

Ezein erakunde militanteek Herria askatuko ez duela kontuan hartuz, borroka masifikatzea da jokoan dagoena; eta borroka ez herriarengandik edo herriarentzat egitea, baizik eta Herria berarekin, eta batez ere Herria aktibazio egoeran jarritz.

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak badaki proiektu orokorrean jende berria sartzeko, identitate komun bat sortzeko eta kontzientziak aldatzeko modu hobereana Herria mugimenduan jartzea dela, denentzat eskuragarria den praktika militante baten bidez, jendea kezkatzen duten gaietan.

Estrategiak alde biko bideak (Frantziako zein nazioarteko agintariekin) eta alde bakarrekoak egituratu beharko ditu, aitzinamendu baldintzak segurtatuz, aurkarien borondatea edozein izanik ere.

Balizko “Garaipen egun” baten baten zain egon gabe, ez eta arduradun politikoen boluntarismoaren beha ere, Mugimendu Abertzaleak azkartu behar du, hemen eta orain, eraldaketarako tresna konkretuen eraikuntza.

## Gehiengo sozial eta politikoen eraikitzea

Aitzinatzeko bide nagusia da abertzaleek eramaten dituzten gaien inguruan ahalik eta indar zabalenak biltzea, gehiengo sozial eta politikoa eraiki eta Estatu nahiz kolektibitate nagusiekiko indar harreman batean kokatzeko. Horrek erran nahi du:

- Borroka sektore eta dinamiken barnean, gehiengo sozial eta politiko zabalen eraikitzean lidergo funtzioa asumitzea;
- Borroka horiek proiektu abertzale emantzipatzailea elikatuko duten ikuspegi estrategiko eta eskema partekatu batetara erakartzea;
- Testuinguruaren arabera, partekatuak diren espazioen baitan egiten den lana dosifikatzea, ideia abertzaleei ikusgarritasuna uzteko.

## Kontra egin, proposatu eta eraikitzea

Mugimendu Abertzaleak uztartu beharko ditu, beraz, oposizio, proposamen eta eraikuntza logikak:

- Borrokaren gibelapena suposatuko luketen ekimen, ideia edo proiektu guzien kontra egitea, euskararen kontrako eraso, espekulazio, iruzurrezko alokatzaile, eskuin muturraren kontrako ekintzen ildotik...
- Hobekuntzen proposatzea, promozio lan bat eginez presio ekintzekin, haien onartuarazteko;
- Tresna alternatibo zehatzak eraiki eta konponbideak atzematea instituzioen ekintzen bidez.

## Nazio ikuspegia indartu

Euskal Herria, aldi berean, borrokaren abiapuntua, helmuga eta aitzina egiteko bidea da. Euskal jendartearen beharrei erantzuteko, Estatuaren eta merkatu librearen gabezien aitzinean, Mugimendu Abertzaleak dinamika politikoak eta tresna konkretuak eraiki behar ditu zazpi probintzien mailan, herritarren nahiak asebetetzeko. Ikuspegi nazionala, atxikimendu sentimental baten bidez sortzen da, baina praktika konkretuen bidez ere gorpuztu behar da.

Mugimendu Abertzaleak, nazio mailan pentsatzen eta lan egiten ikasi behar du berriz ere, bereziki hiru ardatz hauen bitartez:

- Eraikuntza nazionalako lanak segitzea eta urrats berrien abiatzea Euskal Herri mailako alternatiba konkretu batzuen inguruan;
- «Zazpiak bat» proiektuarekiko loturak sortzen dituzten kanpaina eta ekintzen egitea;
- Euskal Herriko hautetsi eta instituzioen arteko lana bultzatzea.

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak azpimarratzen du Euskal Herri osoko eragile eta militante abertzaleen arteko elkarlana eta harremanak, elkar ezagutza, esperientzien eta dinamiken trukaketa sakontzeko beharra.

## Euskal Herritik kanpoko indarrekin lan egitea

Bere aurrerapena errazteko eta herrien arteko elkartasunaren logikan, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak lan bat eginen du gainerateko herri gutxituekin.

Era berean, bere borroka laguntzeko, Frantziako eta Nazioarteko indar aurrerakoiekin lankidetzan aritzea ere aztertu beharko du, Frantses Estatuako eta Europako erabakitzaileengan eragiteko.

**Mugimendu Abertzaleak bere eraginkortasuna eta inklusibitatea hobetu behar ditu. Engaiamendu eredu aldaketei egokitu behar da militanteen denbora eta energia zainduz. Horretarako, bere gaitasunak hobetu behar ditu, garaipen zehatzak lortu eta bere kultura militantea aldatu, metodikoagoa, zorrotzagoa eta eraginkorragoa izan dadin.**

Errealizazio pertsonal eta plazer-iturri diren engaiamendu eredu orekatu eta neurtuak proposatu behar ditu. Baina kultura militantea ere erreproduzitu behar du, eta berehalako emaitza ikusgarririk gabeko kausa global baten alde, sutuki eta iraunkorki, inplikatzeko prest den jende multzo bat atxiki behar du.

Mugimendu Abertzaleak Ipar Euskal Herriko mailan ekin behar du, baina lekuan lekuko problematikei egokituak zaizkien dinamika ere zabaldu behar ditu - bereziki, Ipar Euskal Herriko barnealdean - lurralde osoan aktibismoa atxikitzeko. Horretarako, abertzaleak biltzeko, proiektuak sustatzeko eta ekimen militanteak eramateko guneak eta momentuak eskaini behar ditu.

Bere estrategiaren baitan, elkar osatzen duten lau borroka molde nagusi garatzen ditu Mugimendu Abertzaleak.

## Alternatiba konkretuen eraikuntza

Mugimendu Abertzaleak tresna alternatiboen eraikuntza eta garapena lagunduko du, betiere jatorrizko izpiritu militante, kolektibo eta eraldatzailearen mantentzea zainduz. Arlo hortan, hamarkadako erronkak hauek dira:

- Gaur egun existitzen diren alternatibetan eskala aldaketa bultzatu, abertzaleen eta jendarte zabalaren parte hartzea, erabilpena eta kidetzea orokortuz;
- Egungo beharrei erantzunen dieten tresna berrien sorrera lagundu;
- Arlo guztietan burujabetza lortzeko helburuarekin Euskal Herri mailako alternatiben sorreraren alde lan egin;
- Hauen arteko lankidetzaren indartu "ekosistema" bat osatzeko eta eraginkortasunean irabazteko.

## Mobilizazioak

**Mugimendu Abertzaleak aktibazio soziala eta karrikako masa-mobilizazio lanak segitu behar ditu, baita determinatuagoak eta asumituak diren ekintza formak baliatuz ere:**

- Desobedentzia zibila eta instituzionala;
- Ekintza determinatuak iritzi publikoa interpelatzeko eta erabakitzaile publiko zein pribatuengan presioa jartzeko asmoz;

Sentsibilizazio lanaren ondoan, bide juridikora jotzeko aukera gehiago baliatu behar da.

## Ekintza instituzionala

**Instituzioen eremuan, Mugimendu Abertzalearen lana bikoitza da. Instituzioez jabetzeaz gain, jendartea aldatzeko eta Herriari boterea emateko, instituzioak berak ere aldatu behar ditu haien baitan eztabaida eta erabaki demokratikoak eramateko espazioak sortuz. Horretarako, behar da:**

- Tokiko hauteskundeetan eta hauteskunde sindikaletan presentzia segurtatu ahal bezain bat eremuetan boterea hartzeko asmoz (tokiko exekutiboak, baina baita ekonomia arloko ganberetan edo administrazio kontseiluetan ere adibidez).
- Instituzioetatik, boterean izan edo oposizioan, ekintza instituzional irmoa bultzatu.

## Borroka ideologikoak eta kulturalak

**Borroka praktika horiez gain, Mugimendu Abertzaleak borroka ideologikoa segitu behar du Euskal Herriko herritarrak beste jendarte proiektu batekin bat egitera bultzatzeko. Lan ideologikoak kontzientzietan eragin behar du eta jendarte eraldaketak piztu. Etsaiek dituzten ideiak eztabaidara eraman eta jendarte proiektu abertzalea bultzatu behar du. Borroka ideologiko hori eztabaida formaletan eta informaletan adierazten da; baina baita ideiak hedatzeko baliagarriak diren baina berehalakoan irabazten ahal ez diren aldarrikapenekin ekintzak eta kanpainak eginez ere. Borroka kulturalen erronka desio dugun etorkizun baten ikuspuntu amankomun bat sortzea da. Kontzientziak aitzinatzeko hainbat baliabide badira:**

- Tokiko informazioa
- Etorkizuneko komunikabideetan, numerikoan, sare sozialetan eta ikus entzunezkoan inbertitzea
- Euskal kulturaren adierazpen artistikoa eta sorkuntza
- Ekimen soziokulturalak eta kirol mailakoen antolaketa
- Hezkuntza herrikoia

Baliabide horiek Euskal Herriko lurraldetasunean finkatu, proiektu alternatibo bat zabaldu eta euskarari lehen mailako toki eskaini behar diote.







# Mugi- mendua egin

ERALDAKETA  
FEMINISTA  
GAZTERIA  
ARTIKULAZIOA  
OSAGARRITASUNA  
ANIZTASUNA  
ELKARLANA

# 22



# Eraldaketa feminista

Borroka garaikideak haragiztatzeko duen gaitasunari zor dio Mugimendu Abertzaleak bere egonkortasuna. Mugimendu Abertzaleko militanteak aspalditik ari dira Ipar Euskal Herriko kolektibo feministetan parte hartu eta hauek dinamizatzen. Galdera feministekiko sentiberatasuna emendatzen ari da azken urteetan. Mobilizaziorako zutabe garrantzitsuenetarikoa bilakatu da Hego Euskal Herrian. Argitasun handiarekin heltzen diote belaunaldi berriek borroka honi eta heldu diren urteetako herritarren kezken erdigunean egonen denaren hipotesia ( eta itxaropena) mahaigaineratzen dugu. Borroken aitzindari eta dinamizatzaile rolari eutsi behar dio Mugimendu Abertzaleak. Gai honetako exijentzia maila igotzeko tenorea heldu zaio Mugimendu Abertzaleari :

- Erakunde militanteen praktika eta metodoak eraldatu denen engaiamendurako gogo eta parte hartzeko aukeretara egokituz. Mugimenduan emazteek duten tokia aldatzea, gizonen tokia aldatzea ere bada. Erakunde anitz - batez ere, Hego Euskal Herrikoak - gai honetan engaiatuak dira jadaneke, baina ezinbestekoa da « kultura militante » inklusibo bat orokortzea.
- Diskurtsoak eta ideiak zeharlerroko ikuspegi feminista baten arabera birpentsatu eta Mugimendu Abertzaleak eramaten dituen borrokekiko interseksionalitatea landuz.
- Ipar Euskal Herriko erakunde feministetan gehiago parte hartuz.
- Egiturazko kontzientzia borroken, herri mobilizazioen eta botere publikoen esferako jardueraren bidez, aldaketa sozial eta politikoak eraginez.

Horretarako, Mugimendu Abertzaleak hurrengo hamarkadan izanen duen lehentasunezko zeregina ondokoa izanen da:

- Ipar Euskal Herriko mailan, aktibista eta kolektibo feministak elkartuko dituen tresna masibo baten sortzean parte hartzea (Hego Euskal Herrian den Bilgune Feministaren ereduari jarraikiz), gai konkretuen inguruan jendartea aldatzea xede duten ekintzak hedatzeko.
- Mugimendu Abertzaleko erakundeetan eraldaketa feminista bat sustatzea, plan feministak definituz, horretan ariko diren erakunde eta arduradunak sortuz eta denentzako formakuntzak plantan emanez.

# Gazteria

Badira hamarkada batzuk, aitzineko belaunaldien sozializazio eta jabekuntza politikorako espazioak denetan gainbeheran direla (sare katoliko sozialak, langile mugimenduaren hezkuntza herrikoirako egiturak...). Gazteen arteko harremanak bermatzen zituzten erakunde kolektiboetako anitz ez dira existitzen jada.

Ipar Euskal Herrian dagoen goi-mailako ikasketen eskaintza eskasak, euskal gazteriaren ihes masiboa eragiten du oraino ere. Ikasketak bukatu ondotik, denak ez dira herrira itzultzen.

Ikasketen iraupena luzatzearekin batera, enpleguaren merkatuan sartzea gero eta berantago heldu da. Belaunaldi gazteek ez dauzkate aitzinekoen bizi-baldintza berdinak, prekarizazio testuinguru batean bizi dira, soiltasun energetikoaren premian, etxebizitza baten eskuratzeko ezintasunean... Gazteek ezegonkortasun-garai gogorragoei eta luzeagoei buru egin behar diete. «Gazte denboraren» iraupena luzatu da eta errealitate anitz biltzen ditu (lizeoko ikasleak, unibertsitatekoak, langile prekarioak...).

Borrokarako arrazoiak ez dira eskas. Aitzineko belaunaldien borrokarako helduleku anitzek balio ez duten arren, borrokaren aldekoagoa den testuingurua dute egungo gazteek.

Belaunaldi berriak ez du borroka armatuaren garaia eta Mugimendu Abertzalearen baitako zatiketa ezagutu. Ezkerreko abertzaleen kohesio eta hazkundearen testuinguruan bizi da. Egun loratzen ari den gazteriak, hizkuntzari, kulturari eta lurraldearen nortasunari atxikimendu handiagoa dio. Behar besteko kopuruetara heltzeko anitz gelditzen bada ere, aitzinekoen borrokei esker, gazte euskaldunen kopurua etengabe hazten ari da.

Ipar Euskal Herriko gazteak ekitaldi kulturaletan (Euskal Herria Zuzenean, gaztetxeak, besta komitea, libertimenduak...) eta mobilizazio puntualetan (euskara, feminismoa, ekologia, soziala, etorkinak, preso politikoak, laborantza...) engaiatzen dira. Hala ere, dinamika egonkorak, elkartzeko eta haien ikuspegi arabera bizipenak partekatzeko espazio bateratuak falta dituzte.

Aukera eta erronka handiak dituzte gazte abertzaleek. Masa engaiamendurako kultura bat eraiki behar dute, euskara eta Hego Euskal Herriarekiko harremanak normalizatu, larrialdi klimatikoari aurre egin, sistema sozioekonomikoa eraldatu, generoaren araberako menderakuntza harremanak eten., eta abar...

## Transmisioa

Bere berritzerako baldintzak sortzea da Mugimendu Abertzalearen egitekoa. Fiteago eta urrunago iristeko, aitzineko belaunaldietan baino kopuru, formakuntza maila eta gaitasun hadiagoko gazteria behar du. Belaunaldien berritzea ezin da, neholaz ere, gazteen ardura bakarrik izan. Erronka honek, zaharragoek egin beharreko balore, jakintza eta tresnen transmisioa eskatzen du :

- Baloreen transmisioa, gazteen askatasun egarriak aitzineko belaunaldiek irekitako bideak jorra ditzan.
- Jakintzen transmisioa, gazteen ausardia zaharragoen esperientzian sustraitu dadin eta akatsen errepikapena saihestu dezaten. Biharko gazteriak fiteago eta urrunago iritsi beharko du, eta gehiago izan.
- Transmisioak nahitaez dakar zaharragoek lekukoa pasatzea onartu eta Mugimenduaren animazio ardurak gazteen esku utzi beharra ; baita haiei konfiantza eskaini, eta laguntza ematea ere beharrezkoa izanen delarik.
- Transmisioa gauzatzeko, Mugimenduaren oinarri eta praktikak berritzeko askatasuna eman behar zaie belaunaldi berriei, aberastu eta momentuko errealitatearekin lotu ahal izan dezaten.

## Gazte abertzaleen antolaketa

Mugimenduak dauzkan belaunaldien transmisio eta berritze beharrez gain, gazteria abertzaleak bere gune propioak behar ditu. Mugimendu Abertzaleak lagundu behar dio borroka anitzetan engaiatua den gazteriarri tresna bat sortu eta indartzen, bere adierazpen politikoa hedatzeko eta Ipar Euskal Herriko gazteria osoari zuzentzeko.

# Artikulazioa eta osagarritasuna

**Esfera politiko-instituzionalak eta herri mugimenduek bata bestearekiko dependentzia dute. Baina ezin da politikoki irabazi, aitzinetik esparru sozialean irabazi ez dena.** Aldaketa anbiziotsuak helburu dituen mugimendu politiko batek ezin du hauteskundeetan irabazi eta oinarri zabal bat ukan, jatorrian herri mugimendu baten indarririk izan gabe.

Erakundeen konstelazio bat eta borroka sektorialetan ari diren militante akiezinak ditu Mugimendu Abertzaleak.

**EH Bairen sorreraz geroztik, haren sintesia, itzulpen programatikoa eta ordezkartza politikoa bermatzen dion tresna bateratua du Mugimendu Abertzaleak.**

Borroka sektorialek politika instituzionaletarako sarbidea behar dute aitzinatu ahal izateko. Ezkerreko abertzaleak diren hautetsien beharra dute erabaki guneetan eragin ahal izateko.

Borroka sektorialetan engaiaturiko abertzaleek, Mugimenduaren baitako dinamiken arteko eta organo politikoarekiko loturak bermatzeko ardura dute, sintesia politikoa elkarren artean eraikitzeke eta ikuspegi globalaren elikatzeke.

Instituzioetako boterea eskuratzea ez da helburua bere horretan, eraldaketa soziala gauzatzeko bitarteko bat baizik. Honako helburuak ditu :

- Eskala handiko eraldaketa sozialak gauzatzeko.
- Herritarrak autogestio egoeran jarritz, parte hartze demokratikorako eta herri-aktibaziorako « kultura » bat eraiki eta hedatzea.
- Ekimen militantean garapenerako baldintzak erraztea.
- Alternatiba konkretuen orokortzea sustatzea.

Beste jendarte eredu bat proposatzea da erronka, baina baita hura bestela plantan ezartzea ere. Bilakaera insituzionalaren alde egin eta haien astinketa lanarekin segitu behar dute abertzaleek, baita gehiengo politiko-instituzionala eskuratu duten kasuetan ere. Bozetako garaipenak ezin du hautetsiak bakarrik egotera eramanen lituzkeen sektore mobilizatuen engaiamenduaren bukaerarik ekarri.

Borroka sektorialetan, abertzaleen egitekoa da:

- Borroka horien dinamizazioan parte hartzea Mugimenduak dituen baliabideak ekarriz.
- Lan ideologikoan eta ikuspegi politiko globalaren hedapenean ekarpena egin, borroka epe laburreko aldarrikapen partzialak gaituzten dituzten perspektiba estrategiko egituratzaile eta ortzimuga eraldatzaileetara bideratuz.
- Mugimendu Abertzalearen eta herritarren arteko zubiak eraikitzea.

## Aniztasuna eta elkarlana

Mugimendu Abertzalea, abertzaleak diren edo jendartearen sektore zabalekin partekatutako diren erakundearen ekosistema batean inplikaturiko pertsonak osatzen duten mugimendu herrikoa da. Borroka eremu eta eragile militante bakoitzak bere estrategia eta agenda propioak garatzen ditu bere borroka sektoriala aitzinarazteko. Aniztasunak eta autonomiak aberasten dute mugimendua.

Mugimendu Abertzalea hedatzen ari da. Berau osatzen duten dinamika sektorialek hazkundera bizi dute. Hala izanik ere, ez dute manera berezian funtzionatzen. Transbertsalak diren eta proiektu globala eraikitzen duten heinean, militante abertzaleak hainbat dinamikatan engaiatu ohi dira eta haien arteko harremanak sustatzen dituzte.

Ondoko urteetan, Mugimenduaren erronka partekatuei elkarrekin aurre egiteko xedearekin, elkarlanerako denbora zein espazioetan sakontzeko nahia adierazten dugu. Elkarlanerako momentu horiek ezingo zaizkie neholaz ere

sektore eta erakundeei inposatu eta ezingo dute egiten ari den lana ordezkatu. Puntualak izan beharko dira eta Mugimendua interes orokorrari begira ditugun hutsuneak betetzeko balio beharko dute. Honako forma hartzen ahalko dute:

- Informazioa elkarbanatzeari, egoeraren analisiari, sinkronizazioari edo ekimenak babesteari buruzko gogoeta bateratuak bideorri honen kuadroaren baitan.
- Borroka agenda partekatuta baten sorrera.
- Transmisio historikoa, elkar-ezagutza, militante kopuruaren eta hauen jakintza mailaren emendatzea sustatzen duten formakuntzen antolaketa.
- Mugimenduaren besta giroko hitzordu herrikoia eta aldarrikatzailea izan behar duen Aberri Egunaren antolaketa. Belaunaldi gazteak zein abertzale berriak erakarriz eta emazteei eta genero minorizatuari toki berezia eskainiz, jatorri eta engaiamendu eremu orotako militanteak biltzen segitu behar du. Bagira prozesuaren ondotik, mugimendu osoak batera gertakari hau antolatzen segitu beharko du.
- Elkar laguntza logistikoa, teknikoa, finantziario eta humanoa, antolakunde eta borroka sektoreen arteko elkartasun izpiritu batean.
- Azkenik, belaunaldien berritzeari arreta jarri beharko dio mugimendu osoak, behar izanez gero, gazteria abertzalearen ekimenak kolektiboki babestuz.



# Kon- klu- sioa

60 urtez etengabeko aintzinamendua egin eta gero, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalea bere historiaren inflexio puntu batera iritsi da. Lurraldeko lehen instituzioaren lorpena, borroka armatuaren bukaera eta euskal preso politikoaren askapenerako aintzinamenduek egoera berri batean kokatzen dute. Mugimendu Abertzaleak eramaten dituen dinamikek indarra hartu dute. Bere ideiek eragiten dute, antolakundeak biderkatzen dira, mobilizazioek erakartzen dute eta hauteskundeetako emaitzak sekulan ikusi gabeko mailara iristen dira.

Euskal Hirigune Elkargoak, tokiko lehen erabaki gune bat ekarri du. Baina oraindik anitz gelditzen da lortzeko. Euskara, etxebizitza, ekologia, soziala edota laborantza herrikoia erronkak ikaragarriak dira.

Aldaketa ekologikoen, ekonomikoen, soziologikoen eta berrantolaketa geopolitiko orokorren aitzinean, Estatuak geldirik egoten dira. Testuinguru horretan, Mugimendu Abertzaleak, Euskal Herriari burujabetza politiko eta materiala emateko anbizioa du biztanleek beren bizi-baldintzen gaineko botere demokratikoa berreskuratzeko eta euskal jendarte libre, euskaldun, berdinzale, ekosozialista, feminista eta demokratikoa eraikitzeko.

Gehiengo politiko eta soziala orainik urrun bada ere, Mugimendu Abertzalea lurraldeko indar motorra bilakatu da, erabaki gune guzietan (politikan, ekonomian, sozialean, kulturean, hizkuntzan, laborantzan, komunikabideetan...) iniziatiba hartzera deitua dena.

Bide horretan, Euskal Herriak jendarte progresista baterantz ibiltzeko ezinbestekoa zaion erabakitze eskubide demokratikoa ukatzen dioten arerioei aurre egin beharko die: frantses administrazioa, indar zentralizatzaileak, erreakzionarioak, patriarkalak edota interes ekonomiko liberalak.

Arrazoi horrengatik, garapen betean izanik, Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak gogoeta prozesu bat martxan ezarri du, bere borroka guzietan inplikatuak diren antolakundeen eta kideen indarrak batu ditu, ondoko hamarkadan ere elkarrekin pentsatu eta ekiten segitzeko. Prozesu horretatik ateratzen da:

- Ikuspegi partekatu bat, egoera global zein tokikoari buruz eta ondoko hamarkadako erronkei buruz.
- Sustraitze komun bat abertzaletasunaren oinarritzko baloreen eguneratzean baita gaur egun zeharkatzen duten gaietan (ekosozialismoa, feminismoa, elkartasun inklusiboa...).
- Hurrengo hamarkadarako perspektiba partekatuak, besteak beste:
  - Etapa instituzional berri bat lortzeko dinamika baten beharra eta Mugimendu gisa eraman beharreko helburuak: euskararen, etxebizitzaren, klimaren eta bioaniztasunaren, sozialaren eta laborantza herrikoia arloetan.
  - Dinamika horiek eramateko moldeen gako estrategiko eta praktikoak.
  - Bide-orri hau elkarrekin eramateko, Mugimendua perspektiba feminista transbertsal batetik eraldatzeko eta gazteriaren antolaketa lagunduz bere berritzea bermatzeko elkarlan ardatzak.

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzaleak anbizio partekatua du lurralde honen gerorako eta ofentsiba berri bat pizteko prest da.



bagira\*

# Herri bidea

—  
IPAR EUSKAL HERRIKO  
MUGIMENDU ABERTZALEAREN  
BIDE-ORRIA